


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

ZUZENBIDE  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE DERECHO

---

**UPV-EHU Zuzenbide Fakultatea-Facultad de Derecho**

**DESINFORMAZIOA, ETA INFORMAZIORAKO ESKUBIDE  
ETA ASKATASUNA:  
BIEN ARTEKO HARREMANA ARAUTZEAREN BELDUR?**

**ZUZENBIDEKO GRADUA  
GRADU AMAIERAKO LANA  
2023/2024**

**Zuzendaria: Maite Zelaia Garagarza**

---

**Maddi Ponce Lopez**

**Donostian, 2024**

1.	<b>SARRERA</b> .....	4
2.	<b>MARKO TEORIKO-KONTZEPTUALA: DESINFORMAZIOA, INFORMAZIO ESKUBIDE ETA ASKATASUNA</b> .....	5
3.	<b>DESINFORMAZIO KONTZEPTUARI HURBILKETA: ERAGIN ARRISKUTSUAK SORTU DITZAKEEN KONTZEPTU ZEHAZKABEA ABIAPUNTUAN</b> .....	9
3.1.	<b>PLANTEAMENDUA</b> .....	9
3.2.	<b>DESINFORMAZIO KONTZEPTUAREN HASTAPENAK ETA GAUR EGUNGO ESANAHIA</b> .....	10
3.3.	<b>DESINFORMAZIOAREN ARAUKETA ARAUZKO MAILA ANITZEAN</b> .....	12
4.	<b>INFORMAZIORAKO ESKUBIDEA ETA ASKATASUNA ORDENAMENDU JURIDIKOAN BARRENA</b> .....	14
4.1.	<b>PLANTEAMENDUA</b> .....	14
4.2.	<b>INFORMAZIORAKO ESKUBIDEA ETA ASKATASUNAREN EGITURAKETA: INFORMAZIOAREN IGORLEA, HARTZAILEA ETA OBJEKTUAREN ANALISIA</b> .....	14
4.2.1.	<b>NAZIO BATUAK</b> .....	15
4.2.2.	<b>EUROPAKO KONTSEILUA</b> .....	18
4.2.3.	<b>EUROPAR BATASUNA</b> .....	22
4.2.4.	<b>ESPAINIAR ESTATUA</b> .....	23
5.	<b>DESINFORMAZIOA ETA INFORMAZIORAKO ESKUBIDE ETA ASKATASUNA AURREZ AURRE</b> .....	30
5.1.	<b>TALKA NAGUSIAREN DIAGNOSIA</b> .....	30
5.2.	<b>CASE LAW NAGUSIAK</b> .....	33
5.3.	<b>DIAGNOSIAREN ONDORENEKO KONPONBIDERAKO MEKANISMOA</b> .....	36

5.3.1.	<b>ERREGULAZIOA ARLO PRIVATUAN: KONTSUMITZAILEAK JOMUGAN.....</b>	<b>36</b>
5.3.2.	<b>ERREGULAZIOA ARLO PUBLIKOAN: ATALKAKO ESTRATEGIA NABARIA.....</b>	<b>39</b>
5.3.2.1.	<b>2018ko Komunikazioa.....</b>	<b>40</b>
5.3.2.2.	<b>Desinformazioaren aurkako Jardunbide Egokien Kodea.....</b>	<b>40</b>
5.3.2.3.	<b>Desinformazioaren aurkako Ekintza-Plana.....</b>	<b>41</b>
5.3.2.4.	<b>Europako Kontu Auzitegiaren Txosten Berezia.....</b>	<b>43</b>
5.3.2.5.	<b>2024/900 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2024ko martxoaren 13koa, publizitate politikoaren gardentasunari eta segmentazioari buruzkoa.....</b>	<b>47</b>
5.3.3.	<b>Barne Ordenamendua.....</b>	<b>50</b>
6.	<b>ONDORIOAK.....</b>	<b>53</b>
7.	<b>BIBLIOGRAFIA.....</b>	<b>60</b>

**LABURDURAK:**

- AEB: Ameriketako Estatu Batuak
- ERGA: Entidades Reguladoras Europeas de los Servicios de Comunicación Audiovisual
- EZPNI: Eskubide Zibil eta Pilitikoen Nazioarteko Ituna
- EK: Espainiar Konstituzioa
- EB: Europar Batasuna
- EBJA: Europar Batasuneko Justizia Auzitegia
- EBOEG: Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna
- GEAU: Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala
- GEEA: Giza Eskubideen Europako Auzitegia
- GEEH: Giza Eskubideen Europako Hitzarmena
- NATO: Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundea
- SEAE: Servicio Europeo de Acción Exterior/ Kanpo Harremanetarako Europako Zerbitzua
- KA: Konstituzioa Auzitegia
- NBE: Nazio Batuen Erakundea
- EDMO: Observatorio Europeo de los Medios Digitales
- SOMA: Observatorio Social para el Análisis de la Información y los Medios de Comunicación Sociales
- RAS: Rapid Alarm System/ Alerta Azkarreko Sistema

## 1. SARRERA

Etengabeko aurrerapen teknologikoez inguratua dagoen gizarte batean bizi gara. Ukaezina da azken urteetan emandako aurrerapen hauek, gure gizartearen egunerokotasunean eman dituzten erraztasunak, besteak beste; pertsona ororen arteko komunikazioa errazten dituzte, aisialdirako entretenimendua eskaintzen dute, lan karga arintzen dute, edozein eratako informazioa jartzen digute eskuragarri etab. Ostera, azken honek, gradu amaierako lan honetan aztertuko den erronka berri bat sortu du, *desinformazioa*.

Desinformazioa, gaur egungo gizartean zabaldua dagoen teknika bat da. Pertsonen ezjakintasunetik abiatuz, albiste, gertakari, gai zein datuen manipulazioan oinarritzen da, helburu jakin bat lortzeko asmoz. Masa-komunikabide tradizionalen bitartez zabaldutako mezuek, arau profesionalekin eta albisteen balioekin bat egin behar duten bitartean, aurrerapen teknologikoekin sortutako hedabide sozialen bidez zabaldutako mezuek, zuzeneko lotura dute herriarekin, eta ondorioz, honek, informazio faltsu edo engainagarria transmititzen dutenen mesedera, kazetaritzaren zaindariak saihestea ahalbidetzen diete<sup>1</sup>.

Gaur egungo aro teknologikoan, komunikabide sozialek informazioa eskuragarri jartzeaz gain, informazio egiazkoa edo manipulatuia zabaltzea ahalbidetu dute etengabe, desinformazioaren aroari hasiera emanez. Desinformazio hori mehatxu zuzena bihurtu da oinarrizko eskubideentzat, bereziki informazioa jasotzeko eskubidearentzat. Lan honen helburua desinformazioak informazioa jasotzeko dugun oinarrizko eskubidean duen eragina aztertzea da, baita parte-hartze demokratikoari eta iritzi askea izateko eskubideari nola eragiten dion aztertzea ere. Horretarako, metodologia normatiboa, jurisprudenziala eta doktrinala erabiliko da.

Desinformazioaren arazoari heltzeko, lehenik eta behin, desinformazioaren eta informaziorako eskubidearen azterketa globala egingo dugu. Ondoren, azterketa zehatzago batean murgilduko gara, eta desinformazioaren izaera kontzeptu gisa

---

<sup>1</sup> ENGESSER, Steven, ERNST, Nicole, ESSER, Frank, BUCHEL, Florin, "Populism and social media: how politicians spread a fragmented ideology. Information", *Communication & Society*, 2017, 1109-1126.or.

aztertuko dugu, haren kausak eta adierazpenak identifikatuz. Aldi berean, informaziorako eskubidea oinarritzko eskubide gisa aztertuko dugu, eta horrek adierazpen-askatasunarekin duen aldea aztertuko dugu. Ondoren, jurisprudentzia-azterketa batean sartuko gara, desinformazioaren eta informazio-eskubidearekiko beste faktore batzuen arteko gatazka ulertzeko. Azkenik, arazo horri aurre egiteko nazioartean eta Espainiako ordenamendu juridikoaren barruan ezarri diren ekimenak aztertuko ditugu.

## **2. MARKO TEORIKO-KONTZEPTUALA: DESINFORMAZIOA, INFORMAZIO ESKUBIDE ETA ASKATASUNA**

Desinformazioa arazo larria bihurtu da gaur egungo gizartean. Aro digitalean, non informazioa abiadura bizian doan, egiazkoaren eta faltsuaren arteko bereizketa erraz desitxuratzen da. «Desinformazioa» esanahi zehazturik ez duen terminoa da; hiztegi, erakunde zein arau bakoitzak «Desinformazio» hitzaren esanahi ezberdin bat garatzen du. Hala ere, honela defini daiteke: informazio faltsu edo engainagarria, bai iritzi publikoa nahasteko bai eta interes partikularrak sustatzeko xedearekin zabaldutakoa, informazioa jasotzeko oinarritzko eskubidea zuzenean urratzen duena<sup>2</sup>.

Sistema demokratikoaren oinarriak ahultzen dituen fenomeno da<sup>3</sup>; errealitatearen pertzepzio kolektiboa desitxuratzen du egiazkoaren eta faltsuaren artean bereizteko gaitasuna deuseztatuz<sup>4</sup> eta honela, demokraziaren osotasuna eta ondo informatutako herritarren parte-hartzea askea kaltetuz. Adibidez, 2016ko AEBko hauteskunde presidentzialetan eta Erresuma Batua Europar Batasunetik irteteari buruzko erreferendumean, Facebookek haren erabiltzaileen datu pertsonalak partekatu zituen Cambridge Analyticarekin propaganda politikoa zabaltzeko. Ondoren, publizitate-sistemaren bidez, informazioa aldez aurretik hautatutako

---

<sup>2</sup>Definizio hau, GRAL honetan aztertutako hiztegi zein Nazioarteko Ordenamendu eta Arauek, «desinformazio» terminoaren inguruan emandako definizioak aztertu ondoren ondorioztatuko definizio bat da.

<sup>3</sup>EXPÓSITO GÁZQUEZ, Ariana, “La (des)información en la red”, *Revista Digital de Derecho Administrativo*, 28.zk., 2022, 266.or.

<sup>4</sup>DAFONTE-GÓMEZ, Alberto eta MÍGUEZ GONZALEZ, María Isabel, *El fenómeno de la desinformación : reflexiones, casos y propuestas*, Dykinson, Madrid, 2023, 16.or.

populazio-segmentuei zuzendu zitzairen berariaz, iritzi publikoaren manipulazioaren eraginez<sup>5</sup>.

Testuinguru horretan, desinformazioa herritar guztien informazioa jasotzeko oinarrizko eskubideari zuzenean eragiten dion fenomeno gisa azaleratzen da.

Eskubide honek, informazio jaso zein zabaltzeko eskubidea ahalbidetzen du. Nazioartean zein Espainiako ordenamendu juridikoan babestua, funtsezkoa da gizabanako bakoitzak bere inguruko munduari buruzko iritzi kritikoa eratu ahal izateko. Gainera, beste eskubide batzuk baliatzeko aukera ematen digun eskubide instrumentala da, eta gobernuaren ekintza kontrolatzeko ere funtsezkoa da<sup>6</sup>. Aldi berean, parte-hartze demokratikoa sustatzen du, herritarrek egiazko gertaeretan oinarritutako erabaki informatuak har ditzaten ahalbidetzen baitu.

Ondorioz, desinformazioa ez da informazio faltsua edo engainagarria soilik, oinarrizko izaera duen eskubide baten bortxaketa ekintza da. Benetako informazioa jaso eta zabaltzeko eskubidea zuzenean urratzeak gure garunaren paralisi analitikoa eragiten du, lineako informazioaren sinesgarritasuna ebaluatzeko dugun gaitasuna ahulduz<sup>7</sup>. Honek zuzenean eragiten du norbanakoaren iritzi kritikoa, estatu demokratiko batean libreki parte hartzeko eskubidea hertsatuz<sup>8</sup>.

Informaziorako eskubidea oinarrizko eskubidetzat aitortzen dute nazioarteko erakundeek, hala nola Nazio Batuen Erakundeak, bai eta Europar Batasunak ere, eta barne ordenamenduak<sup>9</sup>. Oinarrizko eskubidea izateak zera esan nahi du, funtsezkoa

---

<sup>5</sup>EXPÓSITO GÁZQUEZ, Ariana, “La (des)información en la red”, *Revista Digital de Derecho Administrativo*, 28.zk., 2022, 266.or.

<sup>6</sup>LADERO, OSCAR, “La información pública como Derecho”, *Tiempo de Gestión* 19.zk., 2015, 119-134.or.

<sup>7</sup>BYUNG CHUL HAN, *En el Enjambre*, Herder Editorial, Barcelona, 2014, 64-65.or.

<sup>8</sup>GARCÍA SANZ, Rosa María, “La difícil relación del instituto de la opinión pública y los procesos de comunicación pública en Internet: la desinformación desafiando las garantías constitucionales”, *Revista de Derecho Político*, 106.zk., 2029, 79 eta 99.or.

<sup>9</sup>Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala. Paris, 1948ko abenduaren 10an onartua.19.artikulu. Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna. Niza, 2000ko abenduaren 7an onartua. 11.1.artikulu. Espainiar Konsitutuzioa , 20.1.artikulu.

delat giza duintasunerako, askatasunerako eta gizarte demokratiko bateko garapen indibidual eta kolektiborako.

Oinarrizko eskubideen ideiak, konstituzioagatik bermatutako eskubideak direla ulertzerat eramaten gaitu; horregatik, baieztat dezakegu printzipioz ez dagoela eskubiderik bermerik gabe. Oinarrizko eskubideen bermeak botere publikoen jardueraren muga dira, herritarrentzako immunitate espazio bat zaintzen duten bitartean<sup>10</sup>.

Oinarrizko izaera duen eskubide bai buruz ari garelarik, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera, 21/1981 epaian adierazten zuen bezalata oinarrizko eskubideak, *“Adierazpen Unibertsalaren eta Giza Eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmenen azpian dauden irismen unibertsaleko balio eta printzipioen sistema bati erantzuten diote... gure ordenamendu juridiko osoa informatu behar dute”*<sup>11</sup>. Honelata, 25/1981 sententziak azpimarratzen duen bezalata, *“Oinarrizko eskubideek antolamendu horri ematen dizkiote oinarrizko edukiak, gure kasuan zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoari”*<sup>12</sup>.

Beraz, oinarrizko eskubideak, irismen unibertsaleko balio eta printzipioak dira , espainiar estatuko ordenamenduaren oinarrizko edukia eta gida nagusiak izanik. Estatuko Zuzenbidearen oinarri diren heinean, KAK, 19/1985 epaian dioen bezalata, deusezak dira eskubide hauen urrapenean oinarritzen diren praktikak: *“Konstituzioak bermatzen dituen oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak errespetatzea ordena publikoaren funtsezko osagaia da, eta, ondorioz, deuseztat jo behar dira errespetu horrekin bateraezinak diren kontratu-xedapenak”*<sup>13</sup>.

Halata, Perez Luñoren doktrinaren arabera, oinarrizko eskubideek hauek, bi dimentsio ezberdin dituzte: batetik dimentsio objektiboa dugu. Oinarrizko eskubideak, sistema demokratiko baten balio eta printzipioekin lotuak daude. Horrek esan nahi du oinarrizko eskubideak optimizazio-aginduak direla, eta beraz botere publikoak bete eta bermatu beharrezko baldintzak ezartzen dituztela. Hau da, botere publikoek eskubide horiek

---

<sup>10</sup>AGUDO ZAMORA, Miguel J, *Manual de derecho constitucional*, Tecnos, Madrid, 2011, 131.or.

<sup>11</sup>1981ko uztailaren 15ko 21/1981 KAE , EBO 161 zkia, 1981ko uztailaren 7koa, AJ 7.

<sup>12</sup>1981ko uztailaren 14ko 25/1981 KAE , EBO 193 zkia, 1981ko abuztuaren 13koa, AJ 5.

<sup>13</sup>1985ko otsailaren 13ko 19/1985 KAE , EBO 55zkia, 1985ko martxoaren 5koa, AJ 1.



ahalik eta gehien garatzeko eta babesteko baldintzak sortzeko betebeharra dute. Bestetik, dimentsio subjektiboa dugu. Dimentsio subjektiboak, gizabanakoen eskubide subjektibo gisa hartzen ditu oinarrizko eskubideak. Horrek esan nahi du pertsona bakoitzak eskubidea duela estatua zein beste gizabanako batzuen aldetik, eskubide horiek errespetatuak izan daitezten eta babestea eskatzeko. Eskubide subjektibo horiek pertsonen autonomia eta duintasuna bermatzen dute, bai Estatuarekiko harremanetan, bai elkarren arteko harremanetan<sup>14</sup>.

KAK ere aipaturiko doktrina azpimarratzen zuen. Besteak beste, uztailaren 14ko 25/1981 epaian berretsi zuen, oinarrizko eskubideak, gizarte baten barruan eskubide subjektiboak direla gizabanakoaren askatasuna eta estatus juridikoa bermatzen dutelako; ordea, aldi berean, herritarrak zentzu hertsian babesteaz gain, komunitate nazionalaren antolaketa justu eta baketsurako elementu objektiboak direla adierazi zuen. *“oinarrizko eskubideak eskubide subjektiboak dira, ... baina, aldi berean, komunitate nazionalaren antolamendu objektibo baten funtsezko elementuak dira,”*<sup>15</sup>.

Oinarrizko eskubideek, aipaturiko berezko dualtasuna edukitzeaz gain, eginbehar bezala ezartzen ditu EKk aldarrikatutako helburuak eta baloreak lortzeko<sup>16</sup>, EKn bertan ezarritako babes-maila gehigarria dute. Beste eskubide eta printzipio batzuekin alderatuta, oinarrizko eskubide horiek berme espezifiko eta zehatzak dituzte.

Oinarrizko eskubideen babes berezia ez da partikularren tresna juridiko bat; hau da, ez da partikularren oinarrizko eskubide baten ustezko urraketaren aurrean erreparazio helburuak dituen prozedura bat, baizik eta legegileak babestu eta bermatu behar dituen jarraibideen berme prozedura orokorra. Botere publikoen jarduerak oinarrizko eskubideen kontzepzio bati erantzun behar dio. Izan ere, eskubide horiek, tradizio liberal baten ondorio eskubide publiko subjektibo izateaz gain, aseguramendu institutua duten eskubide gisa ere ulertu behar dira, eta ondorioz, eskubide horiek erabat gauzatzen direla bermatu behar da ordenamendu osoaren gida-lerro diren heinean. Beraz, babes berezi hauek, EKk emandako aurreikuspenak dira, botere publikoen jarduera baldintzatu edo mugatzen dutenak ordenamendu juridikoaren oinarriak diren

---

<sup>14</sup>PÉREZ LUÑO, Antonio E, *“Los derechos fundamentales”*, Tecnos, Madrid, 1984, 20-24.or.

<sup>15</sup> 1981eko uztailaren 14ko 25/1981 KAE, EBO 193zkia, 1981ko abuztuaren 13koa, AJ 5.

<sup>16</sup>PÉREZ LUÑO, *op.cit.*, 25.or.

horiek babesteko<sup>17</sup>. Berme Konstituzional hauek, 53-54.artikulu bitarte daude jasoak. Honela, hiru berme mota ezberdin daudela esaten dezakegu: *arauzko-bermeak*, oinarrizko eskubideak lege organikoen bidez bermatzen dituztenak eta lege-dekretuek ukitzeko aukera baztertzen dutenak; *erakunde-bermeak*, non Arartekoa bezalako erakundeek eskubide horiek babesteko eginkizuna duten eta babes-errekurtsoak jar ditzaketen; eta *jurisdikzio-bermeak*, babes judizial eragingarria izateko eskubidea, babes-errekurtsoa, konstituziokontrakotasun-errekurtsoa eta habeas corpus prozedura barne, guztiak ere EKan ezarritako oinarrizko eskubideak babesteko diseinatuak.

Beraz, desinformazioa ez da soilik informazio faltsua edo engainagarria zabaltzera mugatzen; oinarrizko eskubide bat zuzenean kaltetzen duen ekintza bat da, kasu honetan, informaziorako eskubidea. Informaziorako eskubidea ez da edozein eskubide; oinarrizko eskubide bat da. Bereizketa horrek berekin dakar gizarte demokratiko baten funtzionamendurako ezinbesteko eskubidetzat hartzea eta ondorioz, beste eskubide batzuekin alderatuta, segurtasun-neurri aurreratuagoak eta berme bereziak ditu. Horregatik, desinformazioari aurre egiteko beharra are garrantzitsuagoa da. Eskubide horren osotasuna zaintzea ezinbestekoa baita demokrazia, herritarren parte-hartze informatua eta beste oinarrizko eskubide eta askatasun batzuen erabilera osoa babesteko.

### **3. DESINFORMAZIO KONTZEPTUARI HURBILKETA: ERAGIN ARRISKUTSUAK SORTU DITZAKEEN KONTZEPTU ZEHAZTUGABEA ABIAPUNTUAN**

#### **3.1. PLANTEAMENDUA**

Desinformazioa, geroz eta gehiago entzuten dugun terminoa da. Historian zehar, eboluzionatzen joan den hitza izan da, hainbat testuingurutan esanahi desberdinak hartuz. Definizioaren aldagarritasun horrek, fenomeno baten berezko konplexutasuna islatzen du, eta fenomeno hori ez da erraz mugatzen.

---

<sup>17</sup>BASTIDA FREIJEDO, José Francisco, VILLAVERDE MENÉNDEZ, Ignacio, REQUEJO RODRÍGUEZ, Paloma, PRESNO LINERA, ALÁEZ CORRAL, Benito, Miguel Ángel, FERNANDEZ SARASOLA, Ignacio, *Teoría general de los derechos fundamentales en la Constitución española de 1978*, Tecnos, Madrid, 2004.

Historikoki, desinformazioa hainbat modutara ulertu izan da, helburu politiko edo propagandistikoetarako informazioa nahita manipulatzetik, egitate zein datu zehaztugabeak edo engainagarriak zabaltzera arte. Kontzeptu bateratu baten gabezia horren ondorioz, gaur egun, hizkuntza, hiztegi eta erakunde publiko bakoitzak, «desinformazioa» terminoaren interpretazio propioa eskaintzen du; era subjektibo batean, hitz horren atzean jasotzen diren ezaugarrien irismen subjektiboan oinarrituz. Honek, hizkuntzaren irismen eta izaera zatikatua dakar. Zentzu horretan, desinformazioa fenomeno konplexu eta multifazetiko gisa azalartzen da.

Ondorengo lerroetan, «desinformazio» terminoaren hastapenetatik, gaur egun arte jaso dituen hainbat esanahi aztertuko ditugu. Hitzaren zehaztasuna lortzeko, hiztegietatik abiatuz, arlo juridikoan, erakundeek termino honen baitan barneratzen dituzten ekintzak zeintzuk diren aztertuko ditugu.

### **3.2. DESINFORMAZIO KONTZEPTUAREN HASTAPENAK ETA GAUR EGUNGO ESANAHIA**

Desinformazioa hitzaren adiera zein den zehaztea ez da erraza. Hastapenei dagokionez, 1949.urtean, Gerra Hotzaren garaian, ingurune beliko batean sortu zen. Errusiar Hiztegiaren lehen adizioan azaldu zen lehen aldiz «desinformazioa» hitza. Bertan honela definitzen da: *“iritzi publikoa nahasteko ekintza informazio faltsuak erabiliz”*. Oxfordeko hiztegiak aldiz, 1955.urtean gehitu zuen «desinformazioa» hitza haren erregistrora; haren jatorria aurretik adierazi bezala, Errusiar hiztegian dagoela jasotzen du. Oxfordeko hiztegiak emandako definizioaren arabera, «desinformazioa» *“nahita ematen den informazio faltsua da, bereziki gobernu-erakundeen aldetik emandakoa”* da<sup>18</sup>.

Espainiar Estatuan murgilduz, Espainiako Errege Akademiak (RAE), honela definitzen du: «desinformatzea» da *“ nahita manipulaturako informazioa ematea helburu jakin batzuen zerbitzura , eta, era berean, informazio eskasa ematea edo ez ematea”*<sup>19</sup>.

---

<sup>18</sup>Oxford English Dictionary, 1955.

<sup>19</sup>Espainiako Errege Akademia, 23. edizioa 2014ko urrian argitaratua.

Testuinguru beliko batean sortutako kontzeptu izan harren, gaur egun haratago joan da. Adibidez, desinformazio mediatiko eta ekonomiko, enpresarial edo korporatiboaz hitz egiten da, konpainia multinazional handiek albisteen hedapena nola kontrolatzen duten aipatuz, herritarren intereserako izan daitezkeenak ezkutatzuz eta horrela politikaren eta iritzi publikoaren hariak mugitzea lortu<sup>20</sup>.

Gaur egungo aro digitalean, “*desinformation*”, “*mis-information*” eta “*mal-information*” kontzeptuak ezberdinu ditzazkegu. “*Desinformazio*”-ak, publikoa engainatzeko asmo argiarekin informazio bat nahita manipuatzeari egiten dio erreferentzia; hau da, igorlea jakitun da informazio bat faltsua dela, eta nahita zabaltzen du, iritzi publikoa manipulatzeko eta nolabaiteko kalteak eragiteko asmoz. “*Mis-information*”, misinformazioari dagokionez, desinformazioaren kasuan bezala, eduki faltsuak zabaltzean datza baina kalterik edo alarmerik eragiteko asmorik gabe, hau da igorleak ez daki zabaltzen ari den hori faltsu edo engainagarria dala. Amaitzeko “*mal-information*” informazio desegokia, pertsona edo erakunde bati kaltea eragiteko helburuarekin, hala nola, talde jakin batzuen aurkako gorroto-diskurtsoetan oinarritutako informazioa zabaltzean datza<sup>21</sup>.

«Desinformazio» terminoaren bilakaera historikoak agerian uzten du haren erabilera handitu egin dela, eta denboran zehar hainbat eremu eta testuinguru hartu dituela. Gerra Hotzaren testuinguruan egin zituen lehen hastapenetatik hasiz, hiztegien aintzatespenetik igaroz, esparru mediatiko, ekonomiko eta politikoetaraino heldu da. Igorlearen asmoaren araberrako desinformazio-moten artean bereizketak dauden arren (hala nola, nahita egindako desinformazioa, okerreko informazioa eta informazio maltzurra), kategoria horiek guztiek ekarpen nabarmena egiten diote desinformazioaren problematika orokorrari. Gaur egungo aro digitalean, informazioaren hedapen azkarrak are gehiago areagotu ditu desinformazioarekin lotutako erronkak, problematika horri modu integralean heltzearen garrantzia azpimarratuz.

---

<sup>20</sup>SERRANO JIMÉNEZ, Pascual, *Desinformación: Cómo los medios ocultan el mundo*, Grupo Planeta, 2009.

<sup>21</sup>WARDLE, Claire, DERAKHSHAN, Derakhshan, Hossein, *Information Disorder: Toward an interdisciplinary framework for research and policymaking*. Council of Europe Report, Strasbourg, 2017.

### 3.3. DESINFORMAZIOAREN ARAUKETA ARAUZKO MAILA ANITZEAN

Arlo juridiko batetik abiatuz, «desinformazio» hitzak hainbat esanahi edo definizio izan ohi ditu, definitzen duen erakundearen arabera. Definizio horiek alda daitezkeen arren, denek dituzte antzekotasunak. Gainera, desinformaziotik eratorritako ondorioak antzekoak dira; izan ere, esparru juridikoan, lege-erakunde guztiek ondorioztatzen dute informazio-eskubidea zuzenean urratzen duen fenomeno delako, oinarritzko eskubidea. Beraz, definizioen arteko aldea ez da ondorio juridikoetan islatzen, ondorio horietara iristeko hartutako prozeduretan baizik.

NBERi dagokionez, Batzar Nagusiak, 78/287 ebazpenean, «desinformazioa» terminoaren definizio argirik ez dagoela azpimarratzen du<sup>22</sup>. Honela, NBERen barnean, Nazio Batuen Telekomunikazioen eta Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak, kaltea eragin dezaketen eduki faltsu edo engainagarriak deskribatzeko erabiltzen duen terminoa da. Gainera, Iritzi- eta adierazpen-askatasunaren kontalari bereziak 2021.urtean garatutako Desinformazioa eta iritzi- eta adierazpen-askatasunaren sustapena eta babesari buruzko txostenean honela definitzen du desinformazioa: *“kalte sozial larria eragiteko nahita zabaltzen den informazioa”*<sup>23</sup>.

EBk, Europako Batzordean 2018.urtean, lineako desinformazioaren aurkako borrokari buruzko komunikazioan, desinformazioa, *“informazioa behar bezala faltsua edo engainagarria, irabazi-asmoekin sortzen, aurkezten eta zabaltzen dena, edo biztanleria nahita engainatzeko, edo publikoan kalte bat eragin dezakeena”* bezala definitzen du<sup>24</sup>.

Kalte publikoei erreferentzia eginez, Europako Batzordeak kalte publiko bezala biltzen ditu prozesu demokratikoen aurkako mehatxuak politikak, osasuna babestearen aurkako

---

<sup>22</sup>Idazkari Nagusiaren 78/287 txostena, 2022ko abuztuaren 3koa, *Giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak sustatzeko eta babesteko desinformazioa indargabetzea*", 3.puntua.

<sup>23</sup>Iritzi eta adierazpen Askatasunerako Erakundearen Kontalari Bereziaren agentziaren A/HRC/47/25 txostena, 2021eko apirilaren 13koa, *“La desinformación y la libertad de opinión y de expresión”*, 15.puntua.

<sup>24</sup>EUROPAKO BATZORDEA, *“Comunicación de la comisión al Parlamento Europeo, al Consejo, al Comité Económico y Social Europeo y al Comité de las Regiones: La lucha contra la desinformación en línea: un enfoque europeo”* 2018ko apirilaren 26a.

ingurumena edo EBko herritarren segurtasunaren aurkako jarrerak. Aldiz, Batzordeak desinformazio terminotik at uzten ditu publizitate engainagarriak, akatsa duten informazioak, parodiak eta alderdikoi gisa argi eta garbi identifikatutako iruzkinak. Gorroto edo material terrorista duten diskurtsoak ez bezala, informazio faltsua edo engainagarria ez da legez kanpoko berez.

Espainiar Estatuko barne ordenamenduan murgilduz, ez dugu desinformazioaren definiziorik. Segurtasun Nazionalako Kontseiluaren urriaren 30eko desinformazioaren aurka jarduteko prozedura argitaratzen duen PCM/1030/2020 aginduan, Europar Batzordeari erreferentzia eginez, azken honek 2028ko Desinformazioaren aurkako borrokari buruzko COM (2018) 236 komunikazioan emandako definizioa azpimarratzen du. «Desinformazioa» *“irabazi-asmoetarako edo herritarrek nahita engainatzeko sortu, aurkeztu eta zabaltzen den informazio egiaztagarri faltsua edo engainagarria, kalte publikoa eragin dezakeena”*, eta kalte publiko horren barruan prozesu demokratikoen eta ondasun publikoen aurkako mehatxuak sartuz<sup>25</sup>.

«Desinformazio» terminoaren konplexutasuna aztertu ondoren, ikus dezakegu kontrako helburuak dituzten hainbat eragilek balia dezaketela informazioaren manipulazioa. Benetako informazioa bera ere oker etiketatu daiteke "albiste faltsu" gisa, eta akreditaziorik gabe. Iritzi, sinesmen eta ezagutza zalantzazkoak ere ezin dira erraz sailkatu egiazkotzat edo faltsutzat. Gainera, kalteak (desinformazioa) eragiteko linean zabaldutako eduki faltsuak asmo maltzurrik gabeko pertsona errugabeek partekatu ditzakete (informazio okerra). Nahita edo nahi gabe, kaltea gauzatu egiten da<sup>26</sup>.

Ondorioz, lan honetan, desinformazioa erabiliko da, irabazi-asmoekin edo eta iritzi-publikoa manipulatzeko transmititzen den eduki faltsua edo engainagarria definitzeko.

---

<sup>25</sup>PCM/1030/2020 Agindua, urriaren 30ekoa, Segurtasun Nazionalako Kontseiluak onartutako desinformazioaren aurka jarduteko prozedura argitaratzen duena.

<sup>26</sup>Iritzi eta adierazpen Askatasunerako Erakundearen Kontalari Bereziaren agentziaren A/HRC/47/25 txostena, 2021eko apirilaren 13koa, “La desinformación y la libertad de opinión y de expresión”, 10.p.

## **4. INFORMAZIORAKO ESKUBIDEA ETA ASKATASUNA ORDENAMENDU JURIDIKOAN BARRENA**

### **4.1. PLANTEAMENDUA**

«Desinformazio» hitzaren esanahi terminologikoa zehazturik, zera esan dezakegu, desinformazioa, informazio faltsu edo engainagarria dela; helburu zehatz bat lortzeko asmoz, biztanleen manipulazioan oinarritzen dena.

Desinformazioa, Nazioarteko, Europar Batasuneko zein Espainiar Estatuko ordenamendu juridikoetan barneratuak dauden giza eskubideen urrapen zuzena suposatzen du, informaziorako eskubidearekin lotura zuzena duelarik. Espainian, informazio-eskubidearen eta -askatasunaren erregulazioa ez da soilik EKan ezarritakora mugatzen, maila handiagoko sistema juridiko-normatiboek ere eragiten baitute. Informaziorako eskubidea Nazioarteko, Europako eta Estatuko ordenamendu juridikoetan aitortua dagoen eskubidea da, eta oinarritzko eskubide gisa araututa dago hiruretan.

Garrantzitsua da aitortzea, maila anitzeko sistema juridiko baten parte garela. Sistema horretan, nazioarteko erakunde eta akordioetatik, hala nola Europar Batasunetik eta giza eskubideei buruzko nazioarteko itunetatik eratorritako araudi eta jarraibideek ere eragin nabarmena dute informazio- eta komunikazio-arloko gure lege eta politiken eraketan.

Maila anitzeko ikuspegi horrek gobernu-maila eta jurisdikzio desberdinen arteko lotura eta dependentzia islatzen ditu, eta oinarritzko eskubide horien erregulazioan nazioartean ezarritako araudiak eta estandarrak aintzat hartzeko eta errespetatzeko beharra azpimarratzen du.

### **4.2. INFORMAZIORAKO ESKUBIDEA ETA ASKATASUNAREN EGITURAKETA:**

Informaziorako eskubidea datuak eskuratzea baino askoz gehiago da; informazioa modu eta bitarteko guztietan transmititzeko eta jasotzeko eskubidea dakar. Informazio-eskubidearen ikuskera zabal horrek subjektu aktibo eta pasiboen sare konplexu bat dakar, bai eta haren babes-objektu bat ere. Funtsezkoa da eskubide hori

zehatz-mehatz definitzea eta interpretatzea, haren irismena eta gizarte informatu eta parte-hartzailearen sustapenean dituen inplikazioak ulertzeko.

Gainera, funtsezkoa da informazio-eskubidearen eta beste eskubide batzuen arteko bereizketa aitortzea, batez ere adierazpen-askatasunarena; izan ere, biek informazioa transmititzeko funtzioa dute, eta, horren ondorioz, askotan nahasi egiten dira eskubide bekar gisa ulertuz. Puntu honetan, informaziorako eskubidearen azterketan murgilduko gara; horretarako, asken oinarrizko eskubide honen ezaugarriak aztertuko ditugu, bai eta adierazpen askatasunarekin dituen ezberdintasunak ikusi, bi eskubide ezberdin direla ondorioztatuz.

#### 4.2.1. NAZIO BATUAK

Informaziorako eskubideak, bilakaera esanguratsua izan du Nazioarteko esparru juridikoan. NBERen Batzan Nagusiaren 1. bilkuralditik hasita, 1946ko abenduaren 14an NBERen Batzar Nagusiak onartutako 59. ebazpenak, informazio-askatasuna oinarrizko giza eskubidetzat onartu zuen, albisteak mugarik gabe biltzeko, transmititzeko eta argitaratzeko eskubidea dela ulertuz<sup>27</sup>. Ondoren, eskubide hori funtsezkotzat jo zen 1948.urtean onartutako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 19. artikuluan; *“Gizabanako guztiek dute adierazpen-askatasuna. Eskubide horrek barne hartzen du erlijioa eta sinismena aldatzeko askatasuna eta bakoitzaren iritziengatik inork ez gogaitzeko eskubidea, ikerketak egitekoa eta informazioa eta iritziak mugarik gabe eta nolanhiko adierazpidez jaso eta zabaltzekoa”*<sup>28</sup>.

1966.urteko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean ere, informaziorako eskubidea berretsi zen. Itun honek aldiz, lehen aldiz, informaziorako eskubidearen mugen aipamena egin zuen; honela 19.2.artikuluak, informaziorako eskubidea berronesteaz gain, honek, beste eskubide eta interes batzuen babesean oinarritutako murrizketak eduki ditzakeela azaleratu zuen; *“Artikulu honetako 2. paragrafoan aurreikusitako eskubidea gauzatzeak betebeharrak eta erantzukizun bereziak dakartza berekin. Beraz, zenbait murriztapenen mende egon daiteke, eta horiek, hala ere, legeak*

---

<sup>27</sup>1946ko abenduaren 14koa, Convocación de una conferencia internacional de libertad de información.

<sup>28</sup>1948ko abenduaren 10koa, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, 19.artikulua.



*beren-beregi finkatu beharko ditu, eta honako hauetarako beharrezkoak izan beharko dute: a) Gainerakoen eskubideak edo ospea errespetatzen direla ziurtatzea; b) Segurtasun nazionala, ordena publikoa edo osasun edo moral publikoa babestea*"<sup>29</sup>.

ROLLNERT LIERN-en arabera, beharrezkoa da EKren 20.1.d) artikulua interpretatzea, *"Giza Eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsalaren eta Espainiak berretsitako gai berberen gaineko nazioarteko itun eta akordioen arabera"* (EKren 10.2 artikulua). Hori funtsezkoa da edozein hedabidetatik egiazko informazioa askatasunez jasotzeko eskubidearen ikuspegi murriztailea eta pasiboa gainditzeko. ROLLNERT LIERNEK argudiatzen du, aurretik aipaturiko Nazio Batuen nazioarteko tresnak (GEAU eta EZPNI), funtsezkoak direla argudio-eraikuntza horretarako. Artikulu horiek argi eta garbi adierazten dute "informazioak eta iritziak ikertzeko eta jasotzeko" eskubidea eta "era guztietako informazioak eta ideiak bilatzeko, jasotzeko eta zabaltzeko askatasuna", informazioa aktiboki bilatzeko eskubidea eskubide aktibotzat hartuz<sup>30</sup>.

Bestetik, 1993an, NBEko Giza Eskubideen Batzordeak, iritzi eta adierazpen-askatasunerako Erakundearen Kontalari Bereziaren agentzia sortu zuen. Kontalari berezi honen funtsezko eginkizunetako bat da informaziorako eskubidearen eduki zehatza definitzea. Zeregin hori 1997az geroztik egin du urteko txosten bakoitzean; agerian utziz informaziorako eskubideak gero eta garrantzi handiagoa duela nazioarteko komunitatean.

Batzordeak 2021 apirilaren 13an, 47/25 txostena garatu zuen, giza eskubideen aurrean desinformazioak sortzen duen mehatxuak aztertuz. Bertan, desinformaziotzat zera ulertzen du, *"gizartean kalte larria eragiteko nahita zabaltzen den gezurrezko informazioa, eta informazio okertzat, berriz, informazio faltsua zabaltzea, jakin gabe"*<sup>31</sup>.

Adierazpen-askatasunak eta informaziorako-askatasunak ukaezina den zuzeneko lotura dute, baina hauen arteko ezberdintasuna azpimarratzea ezinbestekoa da. Biak oinarritzko

---

<sup>29</sup>1966ko abenduaren 16koa, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna, 19.artikulua.

<sup>30</sup>ROLLNERT LIERN, Göran, "El derecho de acceso a la información pública como derecho fundamental: una valoración del debate doctrinal a propósito de la Ley de transparencia", *Teoría y Realidad Constitucional*, 2014, 360.or.

<sup>31</sup>Iritzi eta Adierazpen Askatasunerako Erakundea, *op.cit.*

eskubide izanik, desinformazioaren alorrean talka egiten dutela pentsa daiteke eta honek, hauen arteko haztapen bat egitera bideratzen gaitu.

Eskubide hauen haztapen eta mugen inguruan, NBEren Batzar Orokorraren 78/287 ebazpen honetan, ondorengo azpimarratzen da. Informazio-askatasuna, GEAU-k aitortzen dituen gainontzeko eskubideen funtsa izateaz gain, demokrazia gauzatzeko beharrezkoa da. Aldiz, aipatutako bi eskubide hauek, murriztuak izan daitezke betiere, murrizketa horiek, legezko irizpide espezifiko batzuk betetzen dituzten heinean. Itunaren 19.3. artikulua araber, murrizketak, “legeak ezarritakoak eta beharrezkoak izan behar dute beste pertsona batzuen eskubideak eta ospea, segurtasun nazionala, ordena publikoa edo osasun edo moral publikoko arrazoiak babesteko. Beraz, estatuek ezin dituzte arrazoi gehigarrikerantsi, ezta adierazpena mugatu ere, nazioarteko zuzenbideak baimentzen duenetik harago”<sup>32</sup>.

Ondorioz, desinformazioa prebenitzeko edo murrizteko asmoz, adierazpen-askatasunaren gain mugak jarri daitezke, muga horiek, 19.3. artikulua zerrendatutako kausa edo arrazoiaren barne sartzen diren bitartean.

Zuzenbide konparatuari begirada bat botaz eta Ameriketako zuzenbidearen aipamen bat eginez, 2003.urtean Amerikako Estatu Erakundearen (AEE) Batzar Nagusiak, (XXXIII-O/03) ebazpanaren bitartez<sup>33</sup>, Giza Eskubideei buruzko Amerikako Konbentzioaren 13. artikulua aitortzen duen informazioa jasotzeko eskubidea berretsi zuen. *“Pertsona orok du pentsamendu- eta adierazpen-askatasunerako eskubidea. Hau eskubideak ulertzen du informazioa eta ideiak bilatu, jaso eta zabaltzeko askatasuna mugak kontuan hartu gabe, ahoz, idatziz edo inprimatua edo artistikoa, edo aukeratutako beste edozein prozeduraren bidez”*<sup>34</sup>.

Ebazpenak oinarritzko eskubide horrek gizarte demokratiko batean duen garrantzia azpimarratzen du, informazio publikoa eskuratzea funtsezkoa dela gobernuaren

---

<sup>32</sup>Nazio Batuen Batzar Orokorraren 77/287 ebazpena, 2022ko abuztuaren 12koa, “Contrarrestar la desinformación para promover y proteger los derechos humanos y las libertades fundamentales”, 14 eta 15.puntuak.

<sup>33</sup>2003ko ekainaren 1ekoa, Amerikako Estatu Erakundearen (AEE) Batzar Nagusiaren XXXIII-O/03 ebazpena.

<sup>34</sup>1969ko azaroaren 22koa, Giza Eskubideei buruzko Amerikako Konbentzioa.

gardentasunerako, herritarren partaidetzarako eta demokrazia erabat gauzatzeko. Estatuaren informaziorako sarbidea sustatzeko eta bermatzeko duen betebeharra azpimarratzen du, izan ere, Batzar Nagusiaren ebazpenaren aburuz, informazioa eskuratzea ez da eskubide indibidual bat bakarrik, demokraziaren funtzionamendu egokirako baldintza da.

#### 4.2.2. EUROPAKO KONTSEILUA

Nazioarteko Europako Kontseiluak 1950eko azaroaren 4an Erroman sinatutako, Giza Eskubideen Europako hitzarmenak, haren 10.1.artikuluak, aztergai den eskubidea jasotzen du, besteak beste, Europako Kontseiluko estatu kideek errespetatu beharreko beste oinarrizko eskubide eta askatasun batzuekin batera. Informaziorako eskubideari dagokionez zera dio: “ *Pertsona orok du adierazpen-askatasunerako eskubidea. Eskubide horrek barne hartzen ditu iritzi-askatasuna eta informazioa edo ideiak jasotzeko edo komunikatzeko askatasuna, agintari publikoen esku-hartzerik egon gabe eta mugak kontuan hartu gabe. Artikulu honek ez du eragozten estatuak alde aurreko baimen-araubidea ezartzea irrati-difusioko, zinematografiako edo telebistako enpresei*”<sup>35</sup>.

Eskubide honen izaera zehazteko asmoz, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak hainbat epai eman ditu. 1979ko apirilaren 26ko *Sunday Times vs. Erresuma Batua* epaiaren bitartez, lehen aldiz, eskubide honen existentzia onetsi zuen. GEEAren aburuz, GEEHren 10.artikuluak ez du soilik bermatzen jendeari informazioa emateko eskubidea, azken horrek informazioa jasotzeko duen eskubidea ere bermatzen baitu: “ *ez du soilik bermatzen jendeari informazioa emateko, baita azken horrek informazioa jasotzeko duen eskubidea ere egokia*”<sup>36</sup>.

Informazioa jasotzeko eskubidea onartzeak barne-gatazka sortzen du adierazpen-askatasunaren eta informazio-askatasunaren artean, azken horrek lotura zuzena duelarik informazioa jasotzeko eskubidearekin. Egoera horren aurrean, Auzitegiak, funtsezko bi kontzeptu horien arteko bereizketa esanguratsua egin zuen *Lingens vs Austria* kasuan, adierazitakoaren arabera, adierazpen-askatasunak ideiak,

---

<sup>35</sup>Giza Eskubideen Europako Hitzarmena, 10.1.artikulua.

<sup>36</sup>1979ko apirilaren 26ko GEEAE, 6538/74 auzia, Sunday Times, 66.oinarria

pentsamenduak edo balorazioak adierazteko gaitasuna bermatzen du, eta informaziorako eskubidea berriz, gertaeren komunikazioan oinarritzen da, hau da, egitateak: *“Auzitegiaren iritziz, arretaz bereizi behar dira egitateak eta balio-judizioa (iritziak). Lehenengoen errealitatea frogatu daitezkeen bitartean, bigarrenek ezin dute probarik egin”*<sup>37</sup>.

Ildo honetatik, GEEAk, haren azken sententzia berritzaileenetako batean, *Sanchez vs Francia* kasuan, auzitegiak adierazi du demandatzailearen adierazpen-askatasunerako eskubidea ez zela urratu, ez baitzuen bete erlijio-gorrotoa sustatzen zuten eta aurkari politikoaren aurka zijoazten iruzkinak ezabatzeko erantzukizuna. GEEAren arabera, sare sozialetako kontuen titularren ardura da haietan argitaratutako edukia gainbegiratzea eta kontrolatzea, batez ere kontuak jendearen eskura jartzea aukeratzen dutenean. Horren barruan sartzen da hirugarrenek partekatzen duten legez kanpoko edozein edukiren aurrean azkar erreakzionatzeko betebeharra<sup>38</sup>.

GEEAren berretsi nahi izan du, estatuek, GEEHren 10.artikuluaren baitan babestutako adierazpen-askatasunari mugak jartzeko duten tarte, non eztabaida politikoaren esparruan gauzatutako adierapenen kasuan nahiz eta muga horiek txikiagoak diren, ez da eskubide absolutu bat: *“Horri dagokionez, Auzitegiak gogorarazi du bere eginkizuna kasu honetan aipatutako esku-sartzea "gizarte demokratiko batean beharrezkotzat" jo daitezkeen zehaztea baino ez dela, eta estatu kontratugileek badutela nolabaiteko hautemate-tartea, 10. artikulua arabera, xedapen horrek babestutako adierazpen-askatasunaren esku-sartzearen beharra eta norainokoa ebaluatzeko”*<sup>39</sup>.

GEEAren jurisprudentziaren gako nagusiekin jarraituz, subjektu aktiboak erreparatuz, komunikabideen eta estatuaren posizioak ditugu. Komunikabideekin hasiz, *Bladet Tromso y Stensaas vs Noruega* sententzian GEEAk zera adierazi zuen; komunikabideak gizarte demokratiko bateko funtsezko elementua direla eta *“txakur zaindaria”* papera betetzen dutela; hain zuzen ere, nolabaiteko gehiegikeriaren edo probokazioaren marjinetik at, interes publiko handiko informazioa zabaltzeko betebeharra dutela<sup>40</sup>.

---

<sup>37</sup>1986ko uztailaren 8ko GEEAE, 9815/82 auzia, *Lingens vs Austria*, 46.oinarria.

<sup>38</sup> 2022ko urtarrilaren 17ko GEEAE, 45581/15 auzia, *Sanchez vs Francia*, 87-90.oinarriak.

<sup>39</sup> 2022ko urtarrilaren 17ko GEEAE, 45581/15 auzia, *Sanchez vs Francia*, 81.oinarria.

<sup>40</sup>1999ko maiatzaren 20ko GEEAE, 21980/93 auzia, *Bladet Tromso y Stensaas vs Noruega*, 59.oinarria.

Ildo honetatik, informazio jasotzeko eskubideak, igorlearen aldetik, egitateen egiazkotasuna eskatzen duela adierazi zuen Auzitegiak. *Fressoz y Roire vs Frantzia kasuan* GEEAren aburuz « fede onaren » betekizuna, bereziki informazioa askatasuna modu “aktibo batean”, igorle bezala jokatzen duten horien aldetik (kazetariak), fede onez jokatzea eskatzen du; hau da, interes publikoko gai bati buruzko informazioa zehatza eta fidagarria ematea, egiazta daitezkeen egitateak babestuz: “*Kazetariak interes orokorreko gaiari buruzko informazioa zabaltzeko duten eskubidea babesten du, betiere fede onez eta oinarri faktiko zehatzarekin jarduten badute eta informazio "fidagarria eta zehatza" ematen badute, kazetaritzaren etikaren arabera*”<sup>41</sup>.

Adibidez, GEEAk, *Castells vs Espainiaren* kasuan, KAren gidalerroei aurka eginez, « fede onaren baldintza» azpimarratu zuen. Honela, epaitua izan zen senatariaren aldetik, igorle bezala, bere artikuluan baliozko iritziak eman zituen arren, fede onez egin zuela ondorioztatu zuen; izan ere, bere artikuluan islatu ziren korrante ideologiko desberdinei buruzko informazioa, aurrez kontrastatua izan zela ulertu zuen<sup>42</sup>.

CASERO-RIPOLLÉS-en aburuz, praktikan, hedabideen komertzializazioak edo merkantilizazioak berekin dakar haien jardura etekin ekonomikoak bilatzera igarotzea, non komunikabideen (pribatuak) enpresa- eta finantza-interesak lehentasunezko lekuan dauden. Horren ondorioz, lehentasuna ematen diote ahalik eta ikus-entzule gehien erakartzea lortzen duen informazioa zabaltzeari ahalik eta etekin ekonomiko handiena lortzeko, eta ez "demokraziaren zaindaria den txakurraren" papera betetzeari<sup>43</sup>.

Wojtyczek epaileak, 2015.urtean, *Guseva vs Bulgaria* kasuan, haren boto partikularren bitartez, zalantzan jarri zuen, ordura arte planteatutako "txakur zaindaria" gisa izendatutakoen, eta gainontzeko herritar arrunten artean egindako banaketa; izan ere, argudio horrek ez du kontuan hartzen gaur egungo gizartean Internetarako

---

<sup>41</sup>1991ko urtarrilaren 21ko GEEAE, 29183/95 auzia, *Fressoz y Roire vs Francia*, 54.oinarria.

<sup>42</sup>1992ko apirilaren 13ko GEEAE, 11798/85 auzia, *Castells vs España*, 48.oinarria.

<sup>43</sup>CASERO-RIPOLLÉS, Andreu, “El periodismo político en España: algunas características definitorias”, *Periodismo político en España: concepciones, tensiones y elecciones*, Cuadernos Artesanos de Latina, La Laguna, 2012, 25-27.or

sarbideak edozein herritar gaitu duela "txakur zaindariaren" papera betetzeko, informazioa partekatuz eta zabalduz<sup>44</sup>.

Auzitegiak bere aldetik, egungo aurreparen teknologikoei erantzunez, 2016an, webguneek albisteetarako sarbide publikoa hobetzeko eta informazioaren hedapena sustatzeko duten zeregin esanguratsua kontuan hartuta, blogarien eta sare sozialetan eragina duten erabiltzaileen lana "txakur zaindari publiko" baten antzera ikus daitekeela adierazi zuen<sup>45</sup>.

Estatuari dagokionez, GEEAk adierazi bezala, informazio-askatasunak informazioa jasotzeko eskubidea dakar berekin, eta horrek esan nahi du, pertsonak eskubidea dutela besteek emandako informazioa eskuratzeko eta ondorioz, “ *Gobernu debekutzen du, beste pertsona batzuek eman nahi duten edo eman dezaketan informazioa jasotzea galaraztea* ”<sup>46</sup>. Ostera, alderantzizko kasuetan, ezin dugu ulertu Estatuak informazioa lortzeko eta hedatzeko betebeharrar positibo baten menpe dagoenik<sup>47</sup>. Azken sententzietan ere ildo honetatik jarraitu du auzitegiak; Magyar *Helsinki Bizottság vs Hungria* kasuan, jurisprudenzia klasikoenetik abiatuz, GEEA zera adierazi zuen, informazioa jasotzeko askatasunerako eskubideak debekatu egiten diola gobernuari beste gizabanako batzuek nahi duten informaziorako sarbidea mugatzea, baina ez dio betebeharrar positiborik ezartzen Estatuari informazioa bere ekimenez biltzeko edo zabaltzeko<sup>48</sup>.

Laburbilduz, GEEAk informazioa jasotzeko oinarritzko eskubidea aitortzen du, eta funtsezko bereizketa nabarmentzen du adierazpen-askatasunaren eta informaziorako eskubidearen artean. Adierazpen askatasunaren kasuan, GEEAk argi dio, estatuek honako hau mugatzeko tartea dutela “*gizarte demokratiko batean beharrezkoa*” den kasuetan. Ildo horretan, informazioaren igorleak informazioaren egiazkotasuna bermatzeko duen erantzukizuna azpimarratzen du, baita interes publikoko informazioa modu zintzo eta gardenean zabaltzeko duen erantzukizuna ere. Bestalde, doktrina

---

<sup>44</sup>2015eko otsailaren 17ko GEEAE, 6987/07 auzia, *Guseva vs Bulgaria*, Wojtyczek epailearen boto partikularra.

<sup>45</sup>2016ko azaroaren 8ko GEEAE, 18030/11 auzia, *Helsinki Bizottság vs Hungria*, 168.oinarria.

<sup>46</sup>1987ko martxoaren 27ko GEEAE, 9248/81 auzia, *Leander vs Suecia*, 74.oinarria.

<sup>47</sup>1998ko otsailareko 19ko GEEAE, 14967/89 auzia, *Guerra y otros vs Italia*, 53.oinarria.

<sup>48</sup>2016ko azaroaren 8ko GEEAE, 18030/11 auzia, *Helsinki Bizottság vs Hungria*, 156.oinarria.

klasikoak informaziorako eskubidearen titulartasuna kazetariei mugatzen bazien ere, denborarekin, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak eboluzionatu egin du eskubide hori beste gizabanako batzuek ere balia dezaketela aitortzeko, eta, hala, eskubide horren baitan subjektu aktibo gehiago onartzen ditu.

#### 4.2.3. EUROPAR BATASUNA

Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna dugu, 2000ko abenduaren 7an, Nizan, Europako Parlamentua, Kontseilua eta Batzordearengatik aldarrikatua izan zen, hala ere, 2009ko abenduaren 1ean sartu zen indarrean, Lisboako Tratatuarekin batera. Gutunak EBko herritarren oinarrizko eskubideak eta Batasuneko printzipio orokorrak ezartzen ditu. Esan daiteke, 11.artikulu honen oinarria, GEEHren 10.artikuluak esandakoaren eraginpean garatu zela<sup>49</sup>.

EBren esparruan, informazio eskubidea, EBOEGan aitortzen da; hain zuzen ere, Europako Kontuen Auzitegiak 2021.urtean egindako txostenaren arabera, informaziorako eskubidearen marko juridikoa, aipaturiko azken tratatuko 11.artikuluari dago zehaztua; artikuluak arautzen duena baino haratago esparrurik ez dagoela adieraziz. *“Pertsona orok du adierazpen-askatasunerako eskubidea. Eskubide horrek iritzi askatasuna eta informazioa zein ideiak jaso nahiz ezagutarazteko askatasuna dakartza, herri-agintariek esku sartu gabe eta mugarik kontuan hartu gabe”*<sup>50</sup>.

Jarraian ikusi daitekeen bezala, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziak beste auzitegi batzuekin alderatuta, arreta nabaria jartzen du zuzenbide pribatua, kasuan kasu, zuzenbide publikoko arloan informazio eskubidearen existentzia bigarren plano batean utziz.

*Stichting Collectieve Antennevoorziening Gouda y otros sententzian*, EBJAk interes orokorreko ezinbesteko arazoak direla eta, publizitate mezuak igortzeko murriztapenak ezarri daitezkeela adierazi zuen, betiere, kontsumitzaileak publizitate

---

<sup>49</sup>ARJONA SÁNCHEZ, Miguel, “La infomarcion en la era de internet. El caso de las fake news”, *Revista Estudios Institucionais*, 6.zk., 2020, 383.or.

<sup>50</sup>Europako Kontuen Auzitegiaren Informe Berezia, 2021ko irailekoa, “El impacto de la desinformación en la UE: una cuestión abordada, pero no atajada” 9.orrialdea, 9.puntua.

komertzialaren gehiegikerietatik babesteko hartzen diren kasuetan: *"entzuleek edo ikus-entzuleek publizitate komertziala programaren beste zati batzuekin ez nahasteko helburua duten murrizketak..."*<sup>51</sup>.

Publizitatearekin jarraituz, EBJAk, *Vereinigte Familienpress Zeitungsverlags- und Vertriebs GmbH* adierazi zuen, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 10. artikulua prentsaren aniztasunari eusteko salbuespenak onartzen dituela, betiere legez ezarrita badaude eta gizarte demokratiko batean beharrezkoak badira: *"sariak dituzten jokoetan parte hartzeko aukera ematen duten argitalpenak saltzeko debekuak adierazpen-askatasuna urra dezake. Hala ere, gogoratu behar da Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenaren 10. artikulua onartzen duela askatasun horren salbuespenak ezartzea, prentsaren pluralismoari eusteko, legean aurreikusita dauden eta gizarte demokratiko batean beharrezkoak diren neurrian"*<sup>52</sup>.

#### 4.2.4. ESPAINIAR ESTATUA

EK, Espainiar estatuko ordenamendu juridikoaren arau gorena da, eta beraz, abiapuntua. Lege nagusi gisa, elkarbizitza eta nazioaren antolaketa politiko, ekonomiko eta soziala arautzen dituzten funtsezko printzipioak ezartzen ditu. Honela, informaziorako eskubideak ordenamendu honen barruan duen ondorio juridikoa ulertzeko, funtsezkoa da, eskubide honek Ekan duen presentzia zein den aztertzea. EKK informaziorako eskubidea bermatzeaz gain, eskubide honek dituen babes zein mugapenak adierazten ditu.

Informazioa jasotzeko eskubidea, 20.1.d.artikuluan jaso dagoen eskubidea da eta honela dio: *"Edozein hedabidetatik libreki egiazko informazioa komunikatu edo jasotzeko. Askatasun iharduera hauetan, legeak, kontzientzia baldintza eta profesioari dagokion sekreturako eskubidea arautuko du"*.

Artikuluaren kokapenarekin hasiz, Informazioa jasotzeko eskubidea, EK 20.1.d.artikulu jaso dago. Artikulu hau, Magna Kartaren Lehen Tituluaren

<sup>51</sup>1991ko uztailaren 25ko EBJA, C-288/89 auzia, Stichting Collectieve Antennevoorziening Gouda y otros, 27.oinarria.

<sup>52</sup>1997ko ekainaren 26ko EBJAE, C-368/95 auzia, Vereinigte Familienpress Zeitungsverlags- und Vertriebs GmbH, 26.oinarria.



II.Kapituluan kokaturik dago. Lehen tituluan, oinarrizko eskubide eta betebeharrak jasotzen dira eta II. Kapituluan zehazki, eskubideak eta askatasunak. Hori dela eta, Informaziorako eskubidea oinarrizko eskubide gisa bermatzen dela ulertu dezakegu.

Oinarrizko eskubidea izateaz gain, 20.1.d.artikuluak eztabaida ugaria sortu du doktrinaren barnean; bere idazketa konplexuak eskubide honen existentziari buruzko iritzi eta ideia ezberdinak egotea eragin du. Zentzu honetan, doktrinak artikulua hau *"sinple eta konplexutzat"* jo du, *"dena soberan duela eta dena falta zaiola"* adieraziz<sup>53</sup>.

Eraketa Konstituzionalari erreparatuaz, Informaziorako eskubideak bi alderdi ditu. Alde batetik, pertsonak informatuak izateko duten eskubidea dakar, Estatuaren aldetik, informazio manipulatu izan gabe ezagutzeko duten eskubidea, eta, era berean, bermatu behar du beste inork ezin izango duela informazio hori eman. Bestalde, eskubide horrek berekin dakar iritzi publikoari informazio zehatza, askea, eraginkorra, inpartziala eta askotarikoa emateko eskubide.

KAk, 20.1.d.artikuluaren dimentsioa zehazteko asmoz, 6/1981 epaian informazioa komunikatzeko zein jasotzeko eskubideak pertsona orori dagokiela adierazi zuen, *"egiazko informazioa komunikatzeko eta jasotzeko eskubidea... bi eskubide desberdin biltzen ditu, baina estuki lotuak. Komunikatzeko eskubidea... ere badute; zalantzarik gabe, herritar guztiek, nahiz eta praktikan, batez ere, informazioaren bilaketa eta zabalkundea beren lanbide espezifikoa egiten dutenentzako babesgarri izan; jasotzeko eskubidea erreduantzia da... Eskubide horiek boterearen aurrean askatasun-eskubideak dira, eta herritar guztientzat komunak. Ideiak edo iritziak adierazten edo informazioa komunikatzen aritzen direnek gainerako herrikideek baino maizago erabiltzen dituzte, baina ez dute inolako pribilegiorik..."*<sup>54</sup>.

Aurretik aipatu bezala, informaziorako eskubideak adierazpen-askatasunerako eskubidearekin lotzeko korrantea dago. Aldiz, beste auzitegi batzuek bezala, KAk ere jarrera hori hartu du, eta argi utzi du bi eskubide desberdin direla, bada, haien arteko ezberdintasuna mantendu behar dala. KAk, haien arteko lehen ezberdintasun bat xehatu

---

<sup>53</sup>SÁNCHEZ AGESTA, Luis.: "Simplicidad y complejidad del artículo 20 de la Constitución", *AEDE*, 12.zk., 12-18.or.

<sup>54</sup>1981ko martxoaren 6ko 6/1981 KAE, EBO 89 zkia, 1981ko apirilaren 14koa, AJ 4.

zuen 105/1983 epaian, “*adierazpen-askatasunaren xedea pentsamenduak, ideiak eta iritziak dira, eta kontzeptu zabal horren barruan sinesmenak eta balio-judizioak ere sartu behar dira. Informazioa libreki komunikatzeko eta jasotzeko eskubidea, aldiz, egitateei buruzkoa da, edo, agian, modu mugatuagoan, albistegizat jo daitezkeen gertakariei buruzkoa.*”<sup>55</sup>. Ondorioz, KAK ez du adierazpen askatasunaren esparru berdinean sartzen informazio-askatasuna.

KAren azken sententziei erreparatuz, 65/2015 epaian bi termino ezberdin hauen baitan babesten diren eskubideen ezberdintasuna azpimarratzen du; “*Konstituzioak eta harekin dugun jurisprudentziak bereizten dute, aski ezaguna denez, alde batetik, hitzaren, idazkiaren edo beste edozein erreprodukzio-bideren bidez pentsamenduak, ideiak eta iritziak askatasunez adierazteko eta zabaltzeko eskubidea eta, bestetik, edozein hedabideren bidez egiazko informazioa askatasunez komunikatzekoa*”<sup>56</sup>. Beraz, informazioa-askatasuna egitatetzat hartzen dena transmititzera edo jakinaraztera bideratuta dagoen bitartean, adierazpen-askatasunaren baieztapen edo gezurtapen faktiko guztietatik kanpo geratzen diren balorazio edo iritzien adierazpen eremua da.

EKan jasotako informaziorako eskubidea oinarrizko eskubide gisa bermatu dadin, bi uka behar bete behar direla uler daiteke, «Egiazkotasuna» eta «Egitateei» buruzko informazioa zabaltzeko asmoa; ondorioz uka behar hauetatik at zabalduko informazioak ez du artikulu honen babes konstituzionalik “*Ezinbesteko baldintzak dira informazio askerako eskubidea gauzatzeko babes konstituzionala izatea.... albistegi edo albiste izan daitezkeen egitate bati buruzko informazioa zabaltzea, bere interes publikoagatik, eta egitate horiei buruzko informazioa egiazkoa izatea*”<sup>57</sup>.

Uka behar bezala ulertzen diren terminoen konplexutasuna dela, KAK berak honela definitzen ditu:

«Egiazkotasuna» oinarrizko baldintza bakartzat hartzen bada ere, bi helburu betetzen ditu. Lehenenik KAren 168/1986 epaian adierazitakoaren arabera, funtsezko elementua da gizarte demokratiko baten funtzionamendu egokirako. Egiazko informazioa

---

<sup>55</sup>1983ko azaroaren 23ko 105/1983 KAE, EBO 298 zkia, 1983ko abenduaren 14koa, AJ 11.

<sup>56</sup>2015ko apirilaren 12ko 65/2015 KAE, EBO 122 zkia, 2015eko maiatzaren 22koa, AJ 2.

<sup>57</sup>2007ko ekainaren 4ko 139/2007 KAE, EBO 161 zkia, 2007ko uztaialaren 6koa.

jasotzeko eskubidea, bizitza kolektiboan garrantzitsuak diren gaiak ezagutzeko funtsezkoa izateaz gain, herritarrek sistema demokratikoan aktiboki parte hartzea ere baldintzatzen du. *“egiazko informazioa jasotzeko eskubidea funtsezko tresna da bizitza kolektiboan garrantzia duten gaiak ezagutzeko, eta, horregatik, baldintzatu egiten du Konstituzioak babestutako harreman demokratikoen sistemaren funtzionamendu egokian guztiek parte hartzea... Hori dela eta, Konstituzioaren 20.1 d) artikuluan aitortutako eskubideak kaltetzen dira, bai egiazko informazioa komunikatzea edo jasotzea eragozten bada, bai egiari erantzuten ez dioten berriak zabaltzea, inposatzea edo transmititzea babesten bada, betiere horrek kolektibitatearen eskubidea murrizten badu, murrizketa edo deformaziorik gabe, egiazkoak direnak jasotzeko”*<sup>58</sup>.

Bestetik, 6/1988 epaian, KAK argi adierazi zuen adierazpen-askatasunaren xedea eta informazioa askatasunez komunikatzeko eskubideak ezberdinak direla. Asmoari dagokionez *“Adierazpen-askatasunaren xedea pentsamenduak, ideiak eta iritziak dira. Informazioa askatasunez jakinarazi eta jasotzeko eskubidea aldiz, egitateei buruzkoa da, edo albistegizat jo daitezkeen egitateei buruzkoa.”*

Bi eskubide hauen izaera ezberdina izateak, informazio-askatasunari, adierazpen-askatasunak bete behar ez duen uka behar bat du, «egiazkotasuna»; eta *“Beraz, «Egiazko informazioa» komunikatzeko eskubideak aldiz, informazioa transmititzen duenaren aldetik, datu objektiboetan kontrastatutako berariazko eginbide bat eskatzen du*<sup>59</sup>. Bestetik, 41/1994 epaiaren arabera, *“egiazkotasuna ez dator bat gertaeren errealitate eztabaidaekin. Informazioaren egiazkotasuna, egia bilatzeko betebehar batetik informazioa zabaltzen duenari exijentetzat hartzen da”*<sup>60</sup>. Ondorioz, «egiazkotasunaren» uka beharrak, igorlearengan aurretiazko zeregin bat ezertzen du; zabaltzera dijoan egitateak kontrastatzea.

Desantese autoreak, "egiazko informazioa" esamoldea alferrikako dela dio. Ez du beharrezkotzat ikusten, egiazkotasuna informazioaren elementu implizitua baita. Informazioak egiazkotasunik ez badu, ezin da halakotzat hartu, eta beraz desinformazio bihurtzen da, balio negatiboarekin. Horrela, informazioaren kontzeptuaren barruan,

---

<sup>58</sup>1986ko abenduaren 22ko 168/1986 KAE, EBO 17 zkia, 1987ko urtarrilaren 20koa, AJ 2.

<sup>59</sup>1988ko urtarrilaren 21ko 6/1988 KAE, EBO 31 zkia, 1988ko otsailaren 5koa, AJ 4-5-7.

<sup>60</sup>1994ko otsailaren 15ko 41/1994 KAE, EBO 65 zkia, 1994ko martxoaren 17koa, AJ 3.

egiazkotasuna inplizitua dago. Esamoldeak balio hutsa du, egiazkotasuna albisteei eta egintzei bakarrik aplikatu dakiekeelako; ideiak eta judizioak, berriz, subjektiboak izan daitezke, eta ezin dira egiazkotzat jo edo ez<sup>61</sup>.

Egiatzko informazioaren transmisioaz gain, informazio hau «Egitateei» buruzkoa izan behar da. Egitateetaz hitz egiten dugunean, KA interes publikorako adierazgarriak diren egitateak azpimarratzen ditu; hau da, informazioa jasotzeko eskubideak ez du edozein motatako informazioa eskuratzea ahalbidetzen, interes kolektiborako interesgarriak diren egitateen berri edukitzeko eskubidera mugatzen da. KAK argi dio 105/1983 epaian “1. artikuluko d) idatz-zatia. Konstituzioaren 20. artikulua «edozein hedabideren bidez egiatzko informazioa askatasunez komunikatzeko edo jasotzeko» eskubidea ezartzen du, garrantzi publikoa izan dezaketen eta herritarrek bizitza kolektiboan parte hartzea benetakoa izan dadin beharrezkoak diren gertakariak ezagutzeko interes kolektiboaren mesedetan”<sup>62</sup>.

Doktrinaren barruan 20.1 artikulua inguruan analisi ezberdinak aurkitzen ditugu. Zehaztasun faltak, hainbat iritzi eta ikuspegi sortzea eragin du. 20.1 artikuluan, baietzepan ezberdinak daude barne bildurik eta honek, adituen artean, iritzi zein korrante ezberdinak zabaldu izana suposatzen du. Informazioa jasotzeko eskubidea doktrina juridikoaren barruan eztabaidatu izan da.

BUSTOSEK dioen moduan, doktrinaren barnean 3 korrante ezberdin ditzakegu: batetik, bi eskubide desberdin daudela ukatzen dutenak, askatasun beraren adierazpenak direla kontuan hartuta. Bestetik, informazio-askatasuna, adierazpenaren alderdi bat dela diotenak. Azkenik, bi eskubide ezberdintzen dituztenak, adierazpen askatasuna eta informaziorako askatasuna<sup>63</sup>.

Lehen ideiarekin alde agertzen da FERNÁNDEZ-MIRANDA, bi eskubide desberdin daudela ukatzen du, askatasun beraren adierazpenak direla ulertuz<sup>64</sup>.

---

<sup>61</sup>DESANTES GUANTER, José María.: “Principios jurídicos de la comunicación ideológica”, *Revista de Ciencias de la Información*, Madrid, 1983. 411-428. or.

<sup>62</sup>1983ko azaroaren 23ko 105/1983 KAE, EBO 298 zkia, 1983ko abenduaren 14koa.

<sup>63</sup>RAFAEL BUSTOS, Gisbert, *op.cit.*, “ El concepto de libertad de información a partir de su distinción de la libertad de expresión”, *Revista de estudios políticos*, 85. zk., 1994, 262.or.

<sup>64</sup>FERNÁNDEZ-MIRANDA CAMPOAMOR, Alfonso, “Comentario al artículo 20”, *Comentarios de la Constitución Española Tomo II*, Madrid, 1996, 505-554.or .

Bigarren korrontearen ildotik, SANTAOLLAK; informazioa jasotzeko eskubidea izatekotan adierazpen askatasunaren luzapen bat izango dela ulertzen du eta ez eskubide independente bat<sup>65</sup>.

Doktrinaren gehiengoak, azken ideiarekin alde egiten du; nahiz eta EKren 20.1. artikuluan menpe baitapen bat baino gehiago jaso egon arren, horiek, eskubide ezberdinak direla azpimarratzen dute. Nahiz eta eskubide hauek lotura estua izan eta elkarren osagarri izan daitezkeen, haien izaera eta irismena independenteak dira, eta, horrela, EKk modu independentean bermatu behar ditu, kasuan kasu haien arteko haztapen bat eginez.

ESPINEK, komunikatzeko eskubidea eta informazioa jasotzeko eskubidea bi eskubide desberdin direla dio, baina informazioa komunikatzeko eskubidea adierazpen-askatasunaren modalitate gisa definitzen du<sup>66</sup>. DÍEZ PICAZO ere bat dator iritzi honekin: informazio-askatasuna, honako hau jasotzeko eskubidea dakarrela, baita informazioa jakinarazteko eskubidea ere; izan ere, batak bestearik gabe dagokion funtzioa galtzen du<sup>67</sup>.

Beraz, doktrinaren gehiengoak, KAREN korronte dualista jarraitzen du, bi eskubidearen arteko ezberdintasuna eginez.

BUSTOSEN analisiarekin jarraituz, haren aburuz, 20.1 artikulua oinarri bateratzailea komunikazio-askatasuna da. 20.1 artikulua oinarria komunikazio-askatasuna dela esan daiteke; a) eta d) paragrafoetako askatasunen arteko ezberdintasun nagusia, komunikatzen denaren ondorioa baita, hau da, *objektua*<sup>68</sup>. Ignacio Villaverdek, ideia honi aurka eginez, informazioa jasotzeko oinarritzko eskubidea, komunikatzeko eskubidearekiko independentea dela dio, izan ere, bere objektua ezberdina da; informazioa jasotzea. Hartzaileak, eskubidea du zabaldua

---

<sup>65</sup>SANTAOLALLA LÓPEZ, Fernando, *Derecho Constitucional*, Dykinson, Madrid, 2010, 479. or.

<sup>66</sup>ESPÍN, Eduardo, “Los derechos de libertad (II). Libertades de expresión e información”, *Derecho constitucional. Vol. 1, El ordenamiento constitucional*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2018, 258. or.

<sup>67</sup>DÍEZ PICAZO, Luis María, “La libertad de expresión de información”, *Sistema de derechos fundamentales*, Civitas-Thomson Reuters, Iruña, 2013, 256. or.

<sup>68</sup>GÓMEZ-REINO, Juan, *Legislación básica de Derecho de la Información*, Tecnos, 1985, 16. or.

dagoen guztiaren berri izateko, bai eta Estatuak edo, hala badagokio, partikularrek zabaldu behar duten guztiaren berri izateko ere, edukia edozein dela ere<sup>69</sup>.

Objektua alde batera utziz, BUSTOSEK, komunikatzeko-askatasun hori, doktrinaren zati batentzat berez uniforme, hainbat osagaitan bana daiteke; *igorlea, hartzailea, mezua, kanala eta testuingurua*. Osagai horiek ahalbidetzen dute artikuluko horretan ezarritako eskubideak bereiztea. Elementu horiek aitortutako eskubide bakoitzean ezaugarri bakarrak dituztenez, kontzeptu juridiko desberdinak direla ondoriozta dezakegu eta beraz hainbat eskubide identifikatu ditzazkegu. Beraz, adierazpen-askatasunaren eta informazio-askatasunaren objektuaren edukiaz gain, haien arteko ezberdintasuna beste osagaitan batzuen bitartez bideratzen du.

Bost elementu horien artean, informazio-askatasunak, bi figura nagusi ditu: igorlea eta hartzailea<sup>70</sup>. Bi figura hauek jarrera aktibo edo pasibo dat eduki dezakete eta horretarako, Pérez Royok informazio-askatasunaren barnean barnebildurik dauden informazioa-komunikatzeko askatasuna eta informazioa-jasotzeko askatasuna bereizten ditu<sup>71</sup>.

Igorleari dagokionez, informazioa-komunikatzeko eskubidea atxikitzen zaio eta ohikoa da, esparruan profesionalki diharduten pertsonekin lotzea. K.Aren jurisprudenzian ikusi dugun bezala, eskubide honen testuinguruan, ez dago kategoria espezifiko horietara mugatuta, baizik eta edozein pertsonak erabil dezake. Ildo horretan, igorlea funtsezko bi elementurengatik definitzen da: iritzi publikorako garrantzitsuak diren gertaerei buruzko ezagutza zuzena izatea eta informazio hori transmititzeko gaitasuna duena<sup>72</sup>.

Hartzaileak aldiz, zuzeneko lotura du informazioa-jasotzeko eskubidearekin. Gainerako eskubideekin aldaratuz, informazio-askatasunaren barnean, bereziki garrantzitsua den figura da; izan ere, informazio-askatasunaren helburu nagusia da, gizartearentzat garrantzitsuak eta esanguratsuak diren gertaerentzako sarbidea bermatzea, hau da,

---

<sup>69</sup>VILLAVERDE MENÉNDEZ, Ignacio, "Los derechos del público: la revisión de los modelos clásicos de proceso de la comunicación pública", *Revista Española de Derecho Constitucional*, 23.zk, 2003, 121-150.or.

<sup>70</sup>RAFAEL BUSTOS, Gisbert, *op.cit.*, 270.or.

<sup>71</sup>PÉREZ ROYO, Javier, "Derecho a la información", *Boletín de la ANABAD*, 49.zk., 20.or.

<sup>72</sup>RAFAEL BUSTOS, Gisbert, *op.cit.*, 270-273.or.

garrantzi publikoa duten eta herritarrek komunitatean modu eraginkorrean parte hartu ahal izateko beharrezkoak diren gertaeratarako sarbidea bermatzea. Egitate horiek, automatikoki dakarte herritarren horiek ezagutzeko interesa, zuzenean eragiten baitiote bizitza kolektiboari eta gizarte osoaren ongizateari. KAK aitortu du, herritarrek egiazko informazioa jasotzeko duten interes horrek justifikatzen duela informazio hori jasotzeko eskubidea EKren 20.1 artikulua d) idatz-zatian sartzea. Beraz, informazio-askatasunean, hartzailea da, indibidualki zein kolektiboki, legez babestutako interesaren hartzaile nagusia. Informazioaren hartzailea da eskubide horren bidez babestu nahi dena, bere iritzia osatzeko eta gai publikoetan modu arduratsuan parte hartzeko aukera izan dezan<sup>73</sup>.

VILLAVERDEREN ustez, eskubidearen interpretazioa egiterako garaian, alderdi pasiboan zentratzen gara; informazioa jasotzeko eskubidean, informazioa aktiboki bilatzeko eskubidearen orde. Interpretazio honek, eskubide pasibo gisa ulertzea eramaten gaitu. Ikuspuntu honek, arreta berezia ematen die informazio-emaleei, albide-hornitzaile diren aldetik, babes berezia emanez komunikabideei eta haien profesionalei<sup>74</sup>. PÉREZ ROYOK argi dio, informaziorako eskubideak bi eskubide bereizi dakartzala: informazioa komunikatzeko eskubidea eta informazioa jasotzeko eskubidea. Eskubide horietako bakoitzak alderdi aktiboa zein pasiboa dute eta beraz, informazioa jasotzeko eskubidea ez da komunikatzeko eskubidearen alderdi pasiboa soilik, eskubide bereizi eta independentea baizik<sup>75</sup>.

## **5. DESINFORMAZIOA ETA INFORMAZIORAKO ESKUBIDE ETA ASKATASUNA AURREZ AURRE**

### **5.1. TALKA NAGUSIAREN DIAGNOSIA**

Informazioa jasotzeko eta adierazteko eskubidearen testuinguruan, «Desinformazio» fenomenoaz aztertu ondoren, argi dago desinformazioak erronka nabarmena eta mehatxu zuzena dakarkiola oinarritzko eskubide horri. Egiazko informazioa eskuratzeko zein emateko gaitasuna funtsezko da gizarte demokratikoetan. NBEk eta EBk arazoaren

---

<sup>73</sup>RAFAEL BUSTOS, Gisbert, *op.cit.*, 279-281.or

<sup>74</sup>VILLAVERDE MENÉNDEZ, Ignacio, “Estado democrático e información. El derecho a ser informado” *Revista española de derecho administrativo*, 93 zk, 1997, 62-65.or.

<sup>75</sup>PÉREZ ROYO, Javier, *op.cit.*, 20.or.

garrantzia onartu dute, eta herritarrentzat funtsezkoenak diren eskubideetako baten bermean duen eragin negatiboaz ohartarazi dute.

NBEren analisiarekin hasiz, desinformazioak hainbat giza eskubideri eragiten badie ere, iritzi eta adierazpen-askatasunerako Erakundearen Kontalari Bereziaren iritzi- eta adierazpen-askatasunean inguruko txosten berezian, «desinformazioa», GEAU eta EZPNiaren 19. artikularen urraper zuzena dela adierazten da<sup>76</sup>.

Aro digitalean desinformazioari ekiteak dituen konplexutasunak aitortzaz gain, 2021. urtetik geroztik, Agentziak, ondorioztatu zuen, ordurako estatuen eta enpresak ematen ari ziren erantzunak problematikoak, eskasak eta kaltegarriak izaten ari zirela giza eskubideentzat. Giza eskubideen nazioarteko esparruan oinarritutako erantzun multidimentsionalak eta kolektiboak hartzeko deia egin zuen.

NBEren Batzar Orokorrak, aipaturiko txostena abiapuntzat hartuz, 2022ko urtarrilaren 10ean emandako 76/227 ebazpenean, desinformazioari aurre egiteko eta giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak sustatzeko, desinformazioan aurrean zabalduko kezka azpimarratzen du. Teknologia digital berriek, motibazio politiko, ideologiko edo komertzialen ondorioz, gero eta eskala, abiadura eta irismen handiagoan, estatu zein estatuz kanpo informazio faltsua edo engainagarria sortzeko eta nahita zabaltzeko aukera ematen dute. Honen aurrean azaleratzen ari diren erronkei aurre egiteko premia azpimarratzen du<sup>77</sup>.

Ebazpenak, oin oharrean, argi eta garbi azaltzen du, desinformazio-mota guztiek eragin negatiboa izan dezaketela giza eskubideez eta oinarritzko askatasunez gozatzean. Honela, ideia hau garatuz, 2022ko abuztuaren 10eko 78/287 ebazpenak, 12. puntuan, NBEren esparru juridikoari erreferentzia eginez, berriz ere, desinformazioak GEAUK 19. artikuluan jasotzen duen oinarritzko eskubidea urratzen duela ziurtatzen du<sup>78</sup>.

---

<sup>76</sup>Iritzi eta adierazpen Askatasunerako Erakundearen Kontalari Bereziaren agentzia, *op.cit.*, III.puntua.

<sup>77</sup>Nazio Batuen Batzar Orokorren 76/227 ebazpena, 2021ko abenduaren 24koa, “Contrarrestar la desinformación para promover y proteger los derechos humanos y las libertades fundamentales”, 2. orrialdea.

<sup>78</sup>Nazio Batuen Batzar Orokorra, 77/287 ebazpena, *op.cit.*, 12. puntua: “Gizabanako guztiek dute adierazpen-askatasuna. Eskubide horrek barne hartzen du erlijioa eta sinismena aldatzeko askatasuna eta bakoitzaren iritziengatik inork ez gogaitzeko eskubidea, ikerketak egitekoa eta informazioa eta iritziak mugarik gabe eta nolana hiko adierazpidez jaso eta zabaltzekoa”.



EBk bere aldetik, 2015.urteko martxoan, East StratCom lantaldea abiarazi zuen, Kanpo Harremanetarako Europako Zerbitzuaren (SEAE) mende dagoena, kanpoko iturrietatik, bereziki Errusiatik, zetorren desinformazioa eta propaganda indargabetzeko helburuarekin<sup>79</sup>.

Aldiz, EBk ez zuen «desinformazio» fenomenoaren mehatxuen inguruko deklaraziorik eman 2018.urterarte. 2018. urtean, Europako Batzordeak "Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari: lineako desinformazioaren aurkako borroka: ikuspegi europarra" deituriko COM(2018) 236 komunikazioa igorri zuen desinformazioaren mehatxuari helduz. Bertan, desinformazioak ideia eta jarduera erradikalak eta muturrekoak babesten dituela adierazi zen, EBOEGko 11.artikuluari zuzeneko kaltea eraginez<sup>80</sup>.

Arazoaren sakontasunaren aurrean, Europar Batzordeak ingurune digitalean desinformazioa jorratzeko, erantzun politiko zehatza eta moldagarria behar dela azpimarratu zuen. Gainera zera adierazi zuen, ez dagoela irtenbide bakar bat desinformazioarekin lotutako erronka guztietarako. Ildo horretan, desinformazioaren aurkako neurriak gidatzeko printzipio eta helburu orokor batzuk proposatu zituen<sup>81</sup>, besteak beste; informazioaren jatorriari eta ekoizpenari buruzko gardentasuna areagotu edukia ebaluatu ahal izateko eta iritzia manipulatzeko balizko saiakerak detektatzeko; kalitate handiko kazetaritza, alfabetatze mediatikoa eta informazioaren sortzaileen eta banatzaileen arteko harremanaren berrorka bultzatzea, herritarrek pentsamendu kritikoa oinarritutako erabaki informatuak har ditzaten errazteko; informazioaren

---

<sup>79</sup>Europar Kontseilua "Reunión del Consejo Europeo", 2015eko martxoaren 19 eta 20koa, 13.p.

<sup>80</sup>EUROPAKO BATZORDEA, "Comunicación de la comisión al Parlamento Europeo, al Consejo, al Comité económico y social Europeo y al Comité de las Regiones: La lucha contra la desinformación en línea: un enfoque europeo" 2018ko apirilaren 26a, sarrera: "Gainera, adierazpen-askatasunari kalte egiten dio, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean jasotako oinarrizko eskubideari. Adierazpen-askatasunaren barruan sartzen da komunikabideen askatasunarekiko eta aniztasunarekiko errespetua, hala nola herritarrek iritzia emateko eta informazioa eta ideiak jasotzeko eta transmititzeko duten eskubidea, agintari publikoen esku-sartzerik gabe eta mugak aintzat hartu gabe".

<sup>81</sup>EUROPAKO BATZORDEA, "Comunicación de la comisión...", *op.cit.*, 7.or.

sinesgarritasuna sustatzea, fidagarritasuna adieraziz, batez ere ohartarazle fidagarrien laguntzarekin<sup>82</sup>.

Orain arte, Espainiako Estatuak ez du ekintza esanguratsurik abiarazi desinformazioaren arazoari eraginkortasunez heltzeko. 2020.urtean, Segurtasun Nazionaleko Kontseiluak EBk ezarritako Ekintza Planari jarraitzen duen agindua eman zuen<sup>83</sup>. Orain arte, hau izan da hartutako neurri bakarra. Ekintza falta hori ez dator bat arazoaren larritasunarekin; izan ere, desinformazioa gero eta kezagarriagoa bihurtu da, liskar politikoak eraginez. Alderdi politiko batzuek desinformazioa eta komunikabide berriak erabili dituzte informazio faltsua zabaltzeko, iritzi publikoa manipulatzeko asmoz.

## 5.2. CASE LAW NAGUSIAK

Informaziorako eskubidea funtsezko zutabea da gaur egungo gizarte demokratikoetan; hala ere, erabat erabiltzea eztabaidagarria da beste oinarritzko eskubide batzuekin gatazkan sartzen denean. Testuinguru horretan, EBJAk eta Espainiako KAK berriki emandako epaiek argi uzten dute eskubide horren interpretazioaren eta aplikazioaren konplexutasuna beste eskubide batzuekin talde egiten den egoeretan.

Alde batetik, EBJAren jurisprudentziak informaziorako eskubidearekin eta beste oinarritzko eskubide batzuekin lotutako gatazkak ebaztea du ardatz, haien arteko haztapan baten bidez. Aitzitik, Espainiako jurisprudentzia, haratago doa, eta eskubide horren beharra eta existentzia aitortzen ditu, interes publikoa sustatzeko tresna gisa.

EBJAren sententzia eguneratuagoetan, *Google Spain y Google* kasuan, EBJAk ondorioztatu zuen ez dagoela pertsona bati buruzko informazioa mugarik gabe eskuratzeko eskubiderik, salbu interes historiko, estatistiko edo zientifiko berezirik ez dagoen egoeretan<sup>84</sup>, izan ere, hori nolabait kaltegarria izan daiteke «ahazteko eskubidea»-rentzat. Eta beraz, datuak eta bizitza pribatua «ahazteko eskubidea» barne, gailentzen dira informazio-askatasunerako interes orokorraren gainetik; “*datu horiek*

---

<sup>82</sup>EUROPAKO BATZORDEA, “Comunicación de la comisión...”, *Ibidem*, 8.or.

<sup>83</sup>PCM/1030/2020 Agindua, urriaren 30ekoa, Segurtasun Nazionaleko Kontseiluak onartutako desinformazioaren aurka jarduteko prozedura argitaratzen duena.

<sup>84</sup>2014ko maiatzaren 13ko EBJAE, C-131/12 auzia, Google Spain eta Google, 72.oinarria.

*babesteko eta bizitza pribatua errespetatzeko oinarrizko eskubideak —ahantzurarako eskubidea barne— motor horren kudeatzailearen interes legitimoen eta informazio-askatasunerako interes orokorraren gainetik daude”<sup>85</sup>.*

Era berean, 2019ko *Funke Medien NRW* sententzian, EBJAk, jabetza intelektualeko eskubideei buruzko ebaluazio bat egin zuen, autore-eskubideen eta adierazpen- eta informazio-askatasunaren arteko haztapen bat eginez. Auzitegiaren iritziz, obra jakin baten erabilerak, egungo gertaerei buruzko informazio-interesa duen zehaztea, eta, beraz, erabiltzaileek informazio hori eskuratzeko duten eskubidea gailendu behar den erabakitzea, edo, aitzitik, autorearen eskubide eskusiboak lehenestea, Auzitegi Nazionalei dagokien kontua dela dio; *“autore-eskubideen eta adierazpen-askatasunerako eskubidearen arteko haztapena egiteko, Auzitegiak azpimarratu du, bereziki, beharrezkoa dela kontuan hartzea diskurtso edo informazio mota horrek garrantzi berezia duela, batez ere eztabaida politikoaren edo interes orokorrari eragiten dion eztabaida baten esparruan... Hori guztia jurisdikzio-organo nazionalak, multzoaren arabera haztapenaren esparruan”<sup>86</sup>.*

Barne Ordemenduarii dagokionez, interes publikoaren presentzia nabarmentzen da eskubide honetan. KAren aburuz, herritarrak dira informatuak izateko eskubidearen hartzekodun, iritzi ezberdinen balorazioaren bitartez, bere iritzi propioa osatu dezaten. Informazio zirkulazio aske horrek "iritzi publiko askea" sortuko luke, eta hori da KAK demokratikoaren funtzionamendurako beharrezkotzat jotzen duen baldintza<sup>87</sup>. Horrela, *“oinarrizko eskubidearen... aldeko interpretaziorik onena, ...bere irakurleek informazio osoa eta egiazkoa jasotzeko duten eskubidea, azken finean, izaera objektiboko erakunde-bermea da”<sup>88</sup>.*

Beraz, informazio-askatasunaren eskubidearen menpe zirkulatzen den edukia, egitate informatibotzat hartzea merezi duten horiek dira, hauek frogagarriak ez diren iritzi soiletatik bereizten dira eta herritarron iritzi publiko eta askea sortzeko beharrezkoak dira.

---

<sup>85</sup>2014ko maiatzaren 13ko EBJAE, C-131/12 auzia, Google Spain eta Google, 91.oinarria.

<sup>86</sup>2019ko uztailaren 29ko EBJAE, C-469/17 auzia, Funke Medien NRW. 74- 76.oinarria.

<sup>87</sup>1986ko abenduaren 16ko 159/1986 KAE, EBO 313 zkia, 1986ko abenduaren 31koa.

<sup>88</sup>1986ko abenduaren 16ko 159/1986 KAE, EBO 313 zkia, 1986ko abenduaren 31koa.

EBJAren kasuan bezala, KAK ere, informazio-eskubidea, gizarte demokratiko batentzat funtsezkoa bada ere, beste eskubide batzuekin aldaratuz gatazka dezakeela ere aurreikusi du, hala nola ohorerako eskubidearekin, intimitate pertsonalarekin eta beste oinarritzeko eskubide batzuekin. Egoera horren aurrean, KAK eskubide horiek orekatu nahi izan ditu.

Informaziorako-eskubideak, intimitate-eskuarekin talka egiten duen kasuetan, KAK 171/1990 epaian adierazitakoaren arabera, mezu batek babes konstituzionala jasoko du pertsona baten intimitateari kalte egiten dionean, baldin eta, egiazkoa izateaz gain, beharrezkoa baldin bada interes publikoarentza<sup>89</sup>. Gainera, Auzitegiak, pertsona publiko eta pribatuen arteko ezberdintasun bat egiten du; informazioaren garrantzi publikoaren maila desberdina da tartean dagoen pertsona publikoa edo pribatua den edo arreta publikoa aktiboki bilatu duen kontuan hartuta. Pertsona publikoek, ospea bilatzen duten jardueretan diharduten edo aintzatetsitako figurak diren aldetik, beren borondatez onartzen dute bizitza pribatuari buruzko kritikak eta kontrako adierazpenak egiteko arriskua, eta horrek legitimitate-maila handiagoa ematen dio haiei buruzko informazioa jasotzeko eskubideari<sup>90</sup>.

Laburbilduz, EBko marjo juridikoan, informaziorako eskubidea aitortzen den arren, EBJAren epaiak eskubide hori beste batzuekin haztatzean murrizten da, iritzi publikoa sustatzeko funtsezko eskubide gisa nabarmendu beharrean. Horrek agerian uzten du informaziorako eskubidea beste printzipio batzuei dagokienez kontuan hartzeko joera dagoela, herritarren parte-hartzea eta demokrazia indartzeko funtsezko oinarritzat hartu beharrean.

Bestalde, EKK informaziorako eskubidea azpimarratzen du, iritzi publikoarentzat funtsezkoa baita. Eskubide hori beste batzuekin haztatzeaz gain, eskubide demokratiko gisa duen garrantzia onartzen du, egiazkoa ez den informazioaren ugaritasunaren aurrean. Jarrera horrek onartzen du beharrezkoa dela informazio zehatza eta egiazkoa

---

<sup>89</sup>1990ko azaroaren 12ko 172/1990 KAE, EBO 287 zkia, 1990ko azaroaren 30koa. OJ 3: *“Pertsonen intimitatean sartzen diren pertsonen legitimitatea edo bidegabekeria zehazteko irizpidea ez da egiazkotasuna, baizik eta hedatutako gertakariaren garrantzi publikoa, hau da, iritzi publikoari jakinaraztea beharrezkoa izatea, nahiz eta egiazkoa izan, aztergai dugun gaiaren interes publikoaren arabera”*.

<sup>90</sup>1999ko azaroaren 12ko 171/1990 KAE, EBO 287zkia, 1990ko azaroaren 30ko, OJ10.

eskuratzeko aukera bermatzea, funtsezko zutabea baita gizarte demokratiko informatu eta parte-hartzaile baterako.

### **5.3. DIAGNOSIAREN ONDORENEKO KONPONBIDERA KO MEKANISMOAK**

Desinformazioari heltzeko eta informazio-eskubidea sustatzeko arauketa zein neurri ezberdinak garatu dira azken urteetan. Nazioarteko mailatik hasiz eta egungo Espainiar Estatura heldu arte, bestelako neurriak hartu dira. Aldiz, desinformazioaren problematikari aurre egiteko neurrien hedadura guztiz ezberdina izan da zuzenbidearen arlo pribatuan eta publikoan. Ereku pribatuan, merkatuari begira, araudi zorrotzagoa garatu da, "hard law"<sup>91</sup> izenez ezagutzen dena; hala nola, zenbait erregelamendu eraman dira aurrera. Bestalde, ereku publikoan, hainbat ekimen sustatu badira ere, ekimen horiek "soft law"<sup>92</sup> izenekoaren parte izan ohi dira; besteak beste, adierazpenak, gomendioak eta ebazpenak.

#### **5.3.1. ERREGULAZIOA ARLO PRIBATUAN: KONTSUMITZAILEAK JOMUGAN**

Aro digitalaren aurrerapenek ere negozio eta zerbitzu eredu berrien sorta zabala sortu dute, sare sozialetatik hasi eta lineako kontratazio plataformetaraino, kontsumitzaileei aurrekaririk gabeko aukerak eskainiz. Garapen honek, erabiltzaileen erregulazioari eta babesari buruzko erronkak berriak sortu ditu, adibidez, desinformazioa eta legez kanpoko edukiak. Aro berri honek, EBk estatu kideak desinformazioa eta legez kanpoko edukiak bezalako gaiak jorratzeko araudiak ezartzera eraman ditu.

---

<sup>91</sup>Tratatuen Zuzenbideari buruzko 1969ko maiatzaren 13ko Vienako Konbentzioak jasotzen du "hard law" adierazlearen esanahia. Tratuaren arabera, Termino honen baitan sortzen diren testuek hiru fase igaro behar dituzte: adostasuna lortzeko negoziazioak, sinadura bidezko autentifikazioa eta, ondoren, estatu alderdi bakoitzaren eraketaren araberrako berrespena haien Magna Kartaren arabera. Negoziazioetan parte hartu ez zuten estatu kideek bat egin dezakete itunarekin, atxikitzeko edo onartzeko prozeduren bidez. Berretsi ondoren, estatuek ituneko xedapenak errespetatzeko betebeharra aitortzen dute.

<sup>92</sup>"Soft Law" zuzenbide biguna, izaera loteslea ez duten arren, politika publikoen eraketan eragina duten eta barne-araudietan jaso daitezkeen tresna dira; hala nola nazioarteko erakundeen adierazpenak, gomendioak eta ebazpenak. Tresna horiek ez dute betebeharririk ezartzen, baina estatuek beren borondatez har ditzaketen orientabideak eskaintzen dituzte. Lotesleak ez diren arren, haien eragina esanguratsua izan daiteke, batez ere adostasun zabal batek babesten dituenean.

EBko Zerbitzu Digitalen Erregelamendua, Europako Batzordeak emandakoa, 2024ko otsailaren 17an sartu zen indarrean. Zerbitzu Digitalen Erregelamendu hau, Merkatu Digitalen 2022/1925 (EB) Erregelamendua ere barne hartzen duen pakete baten parte da. Erregelamendua, EBk eremu digitalean erregulazio sendoago baten beharrari buruz egindako aurretiazko seinale batzuei erantzunez sortu da<sup>93</sup>.

2020ko otsailean, Batzordeak "Shaping Europe 's Digital Future" komunikazioa igorri zuen, eta EBn zerbitzu digitalei aplikatu dakizkiekeen arauak indartzearen eta modernizatzaren garrantzia nabarmendu zuen<sup>94</sup>. 2020ko Europako Parlamentuaren zenbait ebazpenek ere, nabarmendu zuten beharrezkoa zela EBn merkataritza elektronikoen esparru juridikoa erformatzea, plataformentzako eta erabiltzaileentzako argitasun juridikoa lortzeko. Horretarako, araudia harmonizatzea lineako edukien zilegitasunik ezari dagokionez, zerbitzu-emaileen erantzukizunetik salbuesteko betekizunak zehaztea, eta legez kontrako edukien eta lineako publizitateko arau zehatzen aurka jarduteko mekanismo baten beharra aitortu zituen<sup>95</sup>. Bestalde, Europako Kontseiluak Parlamentuaren ebazpenak babestu zituen arau argiak, harmonizatuak eta ebidentzietan oinarritutakoak behar zirela adieraziz<sup>96</sup>.

Zerbitzu Digitalen Erregelamendura, EBko merkatu bakarrean edukiak, produktuak eta zerbitzuak dituzten eta erabiltzaileekin zuzeneko harremana duten lineako bitarteko zerbitzu-enpresa guztiei zuzendua dago, Batasunaren barruan edo kanpoan ezarrita dauden kontuan hartu gabe; online merkatuak, sare sozialak, medukiak trukatzeko plataformak, bidaiak erreserbatzeko plataformak eta lineako ostatua<sup>97</sup>.

---

<sup>93</sup>EUROPAR KONTSEILUA, "Paquete sobre Servicios Digitales", 2022ko urriaren 26a. <https://www.consilium.europa.eu/es/policies/digital-services-package/>

<sup>94</sup>EUROPAKO BATZORDEA, "Comunicación: Shaping Europe's Digital Future" 2020ko otsailaren 19a.

<sup>95</sup>2020. urtean Europako Parlamentuak hainbat ebazpen eman zituen gain honen problematika ukituz; besteak beste, Merkatu bakarraren funtzionamendua hobetzeari buruzko zerbitzu digitalen Legeari buruzko ebazpena, Zerbitzu digitalen legeari eta oinarritzko eskubideekin lotutako gaiei buruzko prozedura ez-legegilearen araberrako ebazpena eta Zerbitzu digitalen Legeari buruzko ebazpena, merkataritza-zuzenbideko eta zuzenbide zibileko arauak linean diharduten merkataritza-erakundeei egokitzeari buruzkoa, 2020ko urriaren 20koa.

<sup>96</sup>EUROPAKO KONTSEILUA. "Conclusiones del Consejo sobre la configuración del futuro digital de Europa" 2020ko ekaiaren 9a.

<sup>97</sup>2022/2065 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2022ko urriaren 19koa, zerbitzu digitalen merkatu bakarrari buruzkoa eta 2000/31/EE Zuzentaraua aldatzen duena, 2.art.

Erregelamenduak, bost helburu nagusi ditu<sup>98</sup>: (1) Kontsumitzaileak eta haien oinarrizko eskubideak modu eraginkorragoan babestea. (2) Erantzukizun argiak definitzea lineako plataformentzat eta sare sozialentzat. (3) Legez kontrako eduki eta produktuei, gorroto-diskurtsoei eta desinformazioari aurre egitea. (4) Gardentasuna handitzea informazio eta zaintza hoberekin. (5) Amaitzeko, berrikuntza, hazkundea eta lehiakortasuna sustatzea EBko barne-merkatuan.

Informaziorako eskubidea jopuntan hartuz, erregelamenduak 32. eta 42. artikuluetan jorratzen du bereziki desinformazioaren gatazka. 32. artikuluekin hasiz, *informazioa jasotzeko eskubidea* izenburupean, lineako plataforma emaileei ondorengo betebeharra ezartzen die: merkatari batek haien zerbitzuen bidez legez kanpoko produktu edo zerbitzu bat eskaini duela jakiten duenean, behartuak daude eragindako kontsumitzaileei egoeraren berri ematea. Jakinarazpena baliozkoa izan dadin, legez kontrako produktua edo zerbitzua zein izan den, merkatari arduradunaren nortasuna eta eskuragarri ditzuten edozein baliabide-bide zeintzuk diren adierazi beharko du. Zerbitzu-emailearen betebeharra aurretiazko 6 hilabeetan zerbitzu zein produktuetara mugatuko da.

42. artikulua aldiz, informazioaren gardentasunerako betebeharrak ezartzen ditu. Tamaina handiko plataforma-emaileek hainbat txosten argiratu behar dituzte 15,24 eta 42. artikuluan bertan eskatzen den informazioa emanaz: gauzatutako jardueren inguruko txostena<sup>99</sup>, eztabaiden judizioz kanpoko ebazpeneko organoek tratatutako auziei buruzko eta legez kontrakoak diren edukiengatik eta funtsik gabeko jakinarazpen edo erreklamazioengatik ezarritako etenaldiei buruzko txostenak<sup>100</sup> eta lineako plataforma handiek erabilitako eduki-moderazioko langileei buruzko xehetasunak, jarduera horietaz arduratzen diren langileen kalifikazioei eta hizkuntza-trebetasunei buruzko informazioa, eta langile horiei emandako prestakuntza eta laguntza, eta doitasun-adierazleak eta lotutako datuen txostena<sup>101</sup>.

---

<sup>98</sup>2022/2065 (EB) Erregelamendua, *Ibidem*,  
<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=celex%3A32022R2065>

<sup>99</sup>2022/2065 (EB) Erregelamendua, *op.cit.*, 15.art.

<sup>100</sup>2022/2065 (EB) Erregelamendua, *Ibidem*, 24.art.

<sup>101</sup>2022/2065 (EB) Erregelamendua, *Ibidem*, 42.art.

Ondorioz, aro digitalaren aurrerapenak eraldaketa nabarmena ekarri du negozioak egiteko eta zerbitzuak eskaintzeko moduan, kontsumitzaileentzat aurrekaririk gabeko aukerak sortuz. Aurrerapen horrek funtsezko erronkak sortu ditu erabiltzaileen erregulazioari eta babesari dagokienez, besteak beste, lineako desinformazioaren eta legez kanpoko edukiaren hedapen kezagarria. Fenomeno horrek bultzatu ditu EBko estatu kideak Zerbitzu Digitalen Erregelamendua bezalako araudi bat sortzera, kontsumitzaileen oinarrizko eskubideak babesteko eta desinformazioari aurre egiteko. Erregelamendu honen helburua kontsumitzaileek informazio zehatza eta egiaztatua eskuratzeko aukera izatea da, eta, aldi berean, gardentasun-betebeharrak ezartza lineako plataformentzat. Halaber, merkatu digitalean berrikuntza eta lehiakortasuna sustatzen ditu, erabiltzaile guztientzako lineako ingurune seguruagoa eta fidagarriagoa izateko oinarriak ezarriz.

### **5.3.2. ERREGULAZIOA ARLO PUBLIKOAN: ATALKAKO ESTRATEGIA NABARIA**

2015etik, EBk neurri progresiboak hartzen aritu da lineako desinformazioaren arazoari aurre egiteko. 2015ean, desinformazioari aurre egiteko emandako lehen pausua East StratCom lantaldea sortzea izan zen. Lantalde hau 2015.urtean sortu zen Europar Kontseiluak 2015eko martxoaren 19 eta 20an emandako goi-bileraren ondoren. Helburua, EBri eta haren herrialde kideei eragiten zieten kanpoko iturrietatik, bereziki Errusiatik, zetozen desinformazioa eta propaganda indargabetzea eta EBk kanpaina horien aurrean duen erresilientzia indartzea zelarik<sup>102</sup>.

2018an, Europako Batzordeak lineako desinformazioaren aurkako borrokari buruzko komunikazio bat igorri zuen, arazoari aurre egiteko ikuspegi koordinatu eta proaktibo baten beharra aitortuz. Urte bereko urrian, hauteskunde-kanpainetako desinformazioan oinarritutako jardunbide egokien kode bat sortu zen, eta, ondoren, desinformazioaren aurkako plan zabalago bat egin zen. Hala ere, 2021ean, EBko Batzorde Bereziak txosten kritiko bat egin zuen, orain arte hartutako neurriak lineako desinformazioari aurre egiteko nahikoak ez zirela azpimarratuz.

---

<sup>102</sup>Europar Kontseilua “Reunión del Consejo Europeo”, 2015eko martxoaren 19 eta 20koa, 13.p.





Iturria: Europako Kontuen Auzitegia<sup>103</sup>

### 5.3.2.1. 2018ko KOMUNIKAZIOA

2018an, Europako Batzordeak ohar bat igorri zuen lineako desinformazioaren problematikari helduz, eta informazio faltsu edo engainagarri gisa definitu zuen, kalte publiko potentziala duena, bereziki prozesu demokratikoetan eta osasunari, ingurumenari eta segurtasunari buruzko gaietan.

Erronka horri aurre egiteko, Batzordeak ikuspegi integral bat proposatu zuen, informazioaren jatorriari eta ekoizpenari buruzko gardentasuna areagotzea, informazio-aniztasuna sustatzea, informazioaren sinesgarritasuna sustatzea eta hainbat alderdi interesdunen arteko lankidetzaren bidez irtenbide inklusiboak sortzea biltzen dituena. Urte horretan bertan, jardunbide egokien kodea kaleratu zen, eta lineako desinformazioarekin lotutako erronkei aurre egiteko konpromiso batzuk ezarri ziren<sup>104</sup>.

### 5.3.2.2. DESINFORMAZIOAREN AURKAKO JARDUNBIDE EGOKIEN KODEA

2018.urte hartan bertan, deinformazioari aurre egiteko lehen neurri bezala, EBk 9/2018ko jardunbide egokien kodea argitaratu zuen. Kode honen helburua, desinformazioarekin lotutako erronkei aurre egiteko sinatzaileek, online plataformak eta publizitatearen sektoreko kideak, har ditzaketen ekintzak identifikatzea izan zen;

<sup>103</sup>Europako Kontuen Auzitegia, *op.cit.*

<sup>104</sup>EUROPAKO BATZORDEA, *op.cit.*, 8.or.

sinatzaileek, ezar ditzaketen ekintzak identifikatuz, publizitatearen zenbaketa hobetuz, publizitate politikoan gardentasuna bermatuz eta desitxuratzearen aurkako politikak sustatuz. Kodea fede onean oinarritu zen, sinatzaileen artean zintzotasunez eta zintzotasunez garatu eta adostu izan zen eta sinatzaileek beren printzipioei atxikitzeko asmoa adierazi zuten<sup>105</sup>.

Kodearen eraginkortasuna neurtzeko, sinatzaileek beren lanari buruzko urteko txostenak egiteko konpromisoa hartu zuten, jendaurrean eskuragarri eta hirugarrenek berrikusteko moduan, desinformazioa indargabetzeko. Txosten horietan, besteak beste, publizitatearen zenbaketan, publizitate politikoaren ikusgarritasunean, zerbitzuen osotasunean, kontsumitzaileen ahalduntzean eta ikerketa-komunitatean hartutako neurriei eta egindako aurrerapenari buruzko xehetasunak jasoko zirelarik<sup>106</sup>.

### **5.3.2.3. DESINFORMAZIOAREN AURKAKO EKINTZA PLANA**

EBko jardunbide bateratua eta koordinatua ahalbidetzeko asmoz, 2018.urte hartan, desinformazioaren problematika azpimarratzen zuen komunikazioaren eta lehen jardunbideen kodearen ondoren, EBko “Desinformazioaren aurkako ekintza-plana” plazaratu zuen. Planak, lineako desinformazioari aurre egiteko, alfabetatze mediatikoa indartzeko eta hedabide independenteei laguntzeko neurriak proposatu ziren, bereziki, 2019ko Europako hauteskudeen testuinguruan. Ekintza-plana EBko erakundeek, estatu kideek eta NATOren gisako beste kide batzuen arteko lankidetzan oinarritu zen<sup>107</sup>. Proposatutako neurriak lau zutabetan oinarritu ziren.

Lehen zutabearekin hasiz, ekintza-planak honela izendatu zuen: *“Batasuneko Erakundeek desinformazioa detektatzeko, aztertzeko eta azaltzeko duten gaitasuna hobetzea”*. Bertan, desinformazioaren mehatxuari eraginkortasunez aurre egiteko, SEAEren, Batasuneko Ordezkaritzen eta EBko Fusio Zelularen komunikazio estrategikoko taldeak indartzea proposatu zen. Horretarako, langile espezializatu gehigarriak eta komunikabideen jarraipena egiteko zerbitzu gehigarriak kontratatu behar

---

<sup>105</sup>9/2018 Desinformazioaren aurkako Jardunbide Egokien Kodea, Europako Batzordearena, I.puntua.

<sup>106</sup>9/2018, *Ibidem*, III. puntua.

<sup>107</sup>EUROPAN BATASUNEN KONTSEILUA, “Comunicación Conjunta al Parlamento Europeo, al Consejo Europeo, al Consejo, al Comité Económico y Social Europeo y al Comité de las Regiones: Plan de Acción contra la desinformación”, 2018ko abenduaren 12a, 3-5.or.

zirela azpimarratu zen. Desinformazioari buruzko ikerketa gehigarriak egitea eta tresna analitikoetan inbertitzea ere proposatu zen. Planaren arabera, komunikazio estrategikoko taldeak bi arotan indartuko ziren: epe laburrean, aurrekontua bikoiztuz eta epe ertainean, lanpostu iraunkor gehiago eskatuz. Batzordearen zerbitzuen eta SEAEren arteko lankidetzaz ezarri nahi zen, desinformazio-kanpainak aztertzeke. Lantaldeek lankidetzaz estua izango zuten Batasunaren eta Batzordearen ordezkartzeekin, hala, estatu kideei ekintza horiek osatzeko eta babesteko eskatuko zitzaizkien. Ekintza zehatzei dagokienez, komunikazio estrategikoari buruzko lantaldeak eta EBko ordezkartzak indartzea planteatu zen, desinformazio-jarduerak detektatzeko, aztertzeke eta azaltzeke, bai 2019ko Europako Parlamenturako hauteskundeetarako, bai epe luzeagorako<sup>108</sup>.

Bigarren zutabea, *“Desinformazioari emandako erantzun koordinatuak eta bateratuak indartzea”* zuen oinarri. Desinformazioari heltzeke, funtsezkoa zen alerta azkarreko sistema bat sortzea, desinformazio-kanpainak berariazko azpiegitura teknologiko baten bidez detektatu, aztertu eta indargabetzeke. Estatu kide bakoitzak harremanetarako gune bat izendatzea eskatu zen, alertak partekatzeko eta agintari egokiek, Batzordearekin eta SEAErekin koordinatzeko. Desinformazioari aurre egiteke, gertaeretan oinarritutako komunikazio azkar baten garrantzia nabarmendu zen, batez ere Europako hauteskundeetan testuinguruan. Estatu kideen eta Batasuneko erakundeen arteko lankidetzaz indartzeke eskatu zen, batez ere informazioa trukatzeko, sentsibilizatzeke eta ikertzeke<sup>109</sup>.

Hirugarren puntuak, sektore pribatua zuen oinarri, *“Sektore pribatuen mobilizazioa desinformazioari aurre egiteke”*. 2018ko Irailaren 26an abiarazitako Jardunbide Egokien Kode azkar aplikatzeko deia egin zuen Batzordeak, batez ere publizitate politikoaren gardentasunari, kontu faltsuen itxierari eta botak detektatzeari dagokienez. Batzordeak eta ERGAK gainbegiratzea ezarri zuten, Kodea betetzen zela bermatzeko, aldizkako txostenekin eta haren eraginkortasunaren ebaluazioekin<sup>110</sup>.

Amaitzeke, laugarren zutabeak *“Gizartearen sentsibilizazioa eta erantzuteke gaitasuna handitzeke”* eskatzen zuen. Desinformazioari aurre egiteke, publikoa sentsibilizatzea

---

<sup>108</sup>EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUA, “Comunicación Conjunta...”, *Ibidem.*, 3.1.puntua.

<sup>109</sup>EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUA, “Comunicación Conjunta...”, *op.cit.*, 3.2.puntua.

<sup>110</sup>EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUA, “Comunicación Conjunta...”, *Ibidem.*, 3.3.puntua.

funtsezkoa izanik, gizarte zibilaren parte-hartzea eta mugaz gaindiko lankidetzaren beharrezkotzat jo ziren, datuen egiaztatzaileen eta ikertzaile independenteen eginkizunarekin batera. Honen aurrean, alfabetatze mediatikoa eta sektore guztietako trebakuntza indartzea eskatu zen. Batzordeak plataforma digitalak eta desinformazioari aurre egiteko tresnak finantzatzeko asmoa zuen, komunikabide independenteei eta ikerketa-kazetariei laguntzeaz gain<sup>111</sup>.

Laburbilduz, Batzordeak ondorioztatu zuen desinformazioa arronka garrantzitsua zela Europako demokrazientzat. Nazio-mailan zein EBko prozesu demokratikoa eta herritarren konfiantza babesteko konpromiso irmoaren eta ekintza azkarren beharra nabarmendu zuen. Batasuneko erakundeek, estatu kideek, sektore pribatuaren eta gizarte zibilaren arteko lankidetzarako deia egin zen, desinformazioari eraginkortasunez aurre egiteko<sup>112</sup>.

#### **5.3.2.4. EUROPAKO KONTU AUZITEGIAREN TXOSTEN BEREZIA**

Europako Kontu Auzitegiak garatutako txosten honen helburua zen desinformazioaren aurkako EBren Ekintza Planak lortu nahi ziren emaitzak lortzen ari zen ebaluatzea. Ikuskapenak, desinformazioaren aurkako EBren Ekintza Plana egin aurreko faseetatik hura onartu arteko aldia hartu zuen: 2018ko abendutik 2020ko irailera<sup>113</sup>.

2018ko Desinformazioaren aurkako ekintza planak, lau helburu nagusietan oinarrituz garatu zuen. Era honetan, Kontuen Auzitegiak helburu hauek garatzeko, urte bitarte horretan egondako hutsuneak aztertu zituen. Kontu Auzitegiaren hitzetan *“Desinformazioaren aurkako EBko Ekintza Plana egokia izan zen bere sorreran, baina osatu gabea”*<sup>114</sup>.

Ekintza-planaren lehen zutabea aztertuz, Kontuen Europako Auzitegiaren arabera, *“SEAEk eta Batzordeak ez zuten koordinazio-mekanismo argirik ezarri EBren Ekintza Plana praktikan jartzeko”*. EBko Ekintza Planaren lau zutabeetako bakoitza

---

<sup>111</sup>EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUA, “Comunicación Conjunta...”, *Ibidem.*, 3.4.puntua.

<sup>112</sup>EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUA, “Comunicación Conjunta...”, *Ibidem.*, 15.or.

<sup>113</sup>Europako Kontuen Auzitegia, “El impacto de la desinformación en la UE: una cuestión abordada, pero no atajada”, 2021, 4.or.

<sup>114</sup>Europako Kontuen Auzitegia, *Ibidem.*, Obserbazioak, 14.or.

Batzordearen edo SEAEren Zuzendaritza Nagusi baten eskumena zen. Batzordearen Komunikazio Zuzendaritza Nagusia kanpo-komunikazioaren arduraduna zen, eta desinformazioaren aurkako borrokan zuen zeregina aitortu zuen 2019rako kudeaketa-planean. Desinformazioaren aurkako barne-sare bat ezarri zuen, gai horri buruzko koordinazioa eta komunikazioa hobetzeko helburuarekin, nahiz eta errealitatean instituzio hauek bileretako batean ere ez zuten erabaki osagarririk hartu desinformazioaren aurkako barne-sarea koordinazio-mekanismo eraginkorra izan zedin. Gainera, Komunikazio Zuzendaritza Nagusiak desinformazioari buruzko datu-base zentral bat garatzen ari zen Interneten EBko erakundeek desinformazioaren arloan egiten zituzten lanak biltzeko. 2020ko hasieran merkaturatzea aurreikusita zegoen, baina bertan behera utzi zuten zehaztu gabeko arrazoiengatik<sup>115</sup>.

Lehen zutabearen kasuan, EBko Ekintza Planak ez zuen jarraipenerako eta ebaluaziorako esparru espezifikorik izan, eta horrek inplementazioaren ebaluazio orokorra zaildu zuen.<sup>116</sup> Batzordeak eta SEAEk, planaren aplikazioari buruzko ezagutza bat baino ez zuten eman plana aurkeztu eta 6 hilabeteetara eta gabezia esanguratsuak izan zituen, hala nola, gauzatze-neurririk eza eta Planari lotutako banakako proiektuei buruzko xehetasunik eza<sup>117</sup>.

Lehen zutabearekin jarraituz, txostenak finantzaketa-plan espezifikoaren beharra aipatzen du; izan ere, Ekintza-planak ez zuen finantza-plan espezifikorik esleitutako jarduera guztiak estaltzeko. Esku hartzeko kode espezifikorik ez zegoenez, zailagoa izan zen gastuaren jarraipena egitea. Gainera, EBko Ekintza Plana ez zen eguneratua izan aurkeztu zen egunetik. Adibidez, ekintza batzuk 2019ko Europako Parlamenturako hauteskunderi soilik lotuta zeuden, edo urte horretako alfabetatze mediatikoaren asteari helduak<sup>118</sup>. Finantzaketa-plan espezifiko ezak, zuzeneko eragina izan zuen lan taldeen pertsonal faltan<sup>119</sup>.

---

<sup>115</sup>Europako Kontuen Auzitegia, *Ibidem.*, 15-17.or.

<sup>116</sup>Europako Kontu Auzitegiaren hitzetan "Zaintza- eta informazio-esparru zatikatu batek eta epe luzerako finantzaketarik ezak EBko Ekintza Planaren kontuak emateko gaitasuna ahultzen dute".

<sup>117</sup>Europako Kontuen Auzitegia, *Ibidem.*, 17-20or.

<sup>118</sup>Europako Kontuen Auzitegia, *Ibidem.*, 17-20or.

<sup>119</sup>Europako Kontu Auzitegiaren hitzetan: "*Komunikazio estrategikoei buruzko lantaldeek zeregin garrantzitsua dute, baina ez dute beharrezko langilerik edo finantziario egokirik sortzen ari diren mehatxuei aurre egiteko*"

EBko Ekintza Planaren lehen zutabearen ere, StratCom bezalako lantaldeak aztertu ziren, desinformazioaren aurkako borrokan duten eraginkortasuna ebaluatzeko. Egiaztatu zenez, talde horiek Europako hainbat eskualdetako komunikazioa hobetzen eta politikak sustatzen lagundu bazuten ere, haien aginduek ez dute erabat hartzen desinformazioan inplikaturako agenteen sorta zabala, batez ere kanpoko desinformazioan zentratuta, bereziki errusiar jatorrikoa. StratCom lantaldeen eraginaren ebaluazioa erronka bat izan zen, ez baitzen mekanismo argirik ezarri haien eraginkortasuna neurtzeko. Testuinguru horretan, EUvsDisinfo SEAE generoan integratzeak zalantza sortzen zituen etorkizunean izango zuen helburuari eta misioari buruz<sup>120</sup>.

EBko Ekintza Planaren II. zutabearekin jarraituz, erantzun koordinatu bat lortzeko asmoz, alerta azkarrerako sistema bat sortzeko beharra ikusi zen: *"Alerta azkarreko sistemak estatu kideak bildu ditu, baina ez du bere potentzial handiena lortu"*. Alerta azkarreko sistemak funtsezko bi elementu zituen: harremanetarako gune nazionalen sare bat eta Interneteko plataforma bat, desinformazio-kanpainez berehala ohartarazteko, azpiegitura teknologiko espezifiko baten bidez, datuen bateratzea eta ebaluazioa errazteko, egoeraren ezagutza komuna, esleipena eta erantzun koordinatu eta azkarra ahalbidetzeko, eta baliabideen erabileraren eraginkortasuna bermatzeko. Alerta azkarreko sistema desinformazioari aurre egiteko funtsezko tresna gisa ezarri zen. Hala ere, ikuskapenaren unera arte, RASek ez zuen alertarik igorri, ezta ekintza bateraturik koordinatu ere, aurreikusita zegoen bezala. Alertak denbora errealean emateko eta erantzunak koordinatzeko diseinatu bazen ere, komunitate bat garatzean eta informazioa partekatzean zentratu zen. Jarduera eta RASeko parte-hartzea, estatu kide kopuru mugatu batengatik bultzatu zen; beraz, RASek ez zuen bere potentzial handiena lortu<sup>121</sup>.

Ekintza Planaren III.zutabeak arlo pribatuaren parte hartzea sustatzeko Jardunbide Egokien Kodearen aplikazioa eskatu zen. Auzitegiak haren txostenean honako hau adierazi zuen: *"Jardunbide egokien kodeak lineako plataformek desinformazioaren aurkako iritzia ematen lagundu zuen, baina ez zuen lortu kontuak ematea"*. Jardunbide egokien kodeak ezarri zuen online plataformek eta publizitate-sektoreko erakunde

---

<sup>120</sup>Europako Kontuen Auzitegia, *op.cit.*, 20-28.or.

<sup>121</sup>Europako Kontuen Auzitegia. *Ibidem*, 29-32.or.

profesionalek txostenak aurkeztu behar zizkiotela Europako Batzordeari, beren konpromisoak betetzeko hartutako neurriak azaltzeko, hala nola publizitate politikoaren gardentasuna bermatzeko eta desinformazio-hornitzaileek etekin ekonomikoak lortzea saihesteko. Batzordeak gertutik gainbegiratu zuen konpromiso horiek betetzen zirela. Kodearen ebaluazioek agerian utzi zuen gabeziak zeudela txostenak aurkezteko betekizunetan, baina ebaluazio horiek ez zuten Kodean aldaketarik eragin<sup>122</sup>.

Amaitzeko IV.zutabearen inguruan zera ondorioztatu zen; *"Alfabetatze mediatikoko estrategia koherenterik ez egoteak eta Batasunaren ekintzen zatiketak eragina galtzen dute"*. Estatu kideek alfabetatze mediatikoaren astean izan zuten parte-hartzea ez zen uniformea izan, eta ez zen garatu desinformazioaren aurkako borroka barne hartzen zuen alfabetatze mediatikoaren estrategia globalik. Ekimen eta proiektu ugari egin baziren ere, adibidez EDMO eta SOMA proiektuak, hauek objektuak, koordinazio eta ebaluazio sistematikoa falta izan zen<sup>123</sup>.

Europako Kontu Auzitegiaren txostenarekin amaitzeko, Auzitegiak ondorioztatu zuen EBren desinformazioaren aurkako Ekintza Plana egokia izan zela arazoei aurre egiteko baina osatu gabe zegoela. Hala ere, plana sortu zenetik, 2018tik, ez da eguneratua izan eta desinformazioak aldiz, etengabeko bilakaera eman du. Planaren eraginkortasuna bilatzeko asmoz, Auzitegiak, sei gomendio eta betebeharrak planteatu zituen<sup>124</sup>:

(1) Lehenik, Europako Batzordeak hobetu egin behar zuen desinformazioaren aurkako koordinazio- eta kontu-esparrua. Horretarako, komunikazio-mekanismo argiak ezarri behar ziren zerbitzu egokien artean, berriazko jarraipen- eta ebaluazio-esparru bat ezarriz, horretarako aldi behingo txostenak aurkeztea proposatu zuen behar ziren ekintzen gauzatzeari buruz, finantzaketaren laburpen bat barne. 2021era arteko epea ezarri zen lehen bi gomendioetarako, eta 2023ra artekoa gainerakoetarako.

(2) Bigarrenik, SEAEk bere komunikazio estrategikoen eta lantaldeen sailaren xedapen operatiboak hobetu behar zituen desinformazio-mehatxuetara bideratuz kontseiluaren

---

<sup>122</sup>Europako Kontuen Auzitegia, *op.cit.*, 33-39.or

<sup>123</sup>Europako Kontuen Auzitegia, *Ibidem* 39-47.or.

<sup>124</sup>Europako Kontuen Auzitegia, *Ibidem*, 48. orritik aurrera.

arreta, kontratazio-helburuak lortuz, giza baliabideak bideratuz eta jarduera operatiboan aldizkako ebaluazioak eginez. 2022. urtearen erdialdera arteko epea ezarri zen.

(3) SEAEk estatu kideen eta lineako plataformen parte-hartzea handitu behar zuen RASen, mekanismo hau desinformazioaren aurkako erantzun gisa erabili ahal izateko eta aldi berean RASen eta lineako plataformen arteko lankidetzaren esparru bat lortzeko. Epea 2022ko erdialdera artekoa zen.

(4) Kontu Auzitegiak eskatuta, Batzordeak Jardunbide Egokien Kodea sinatu zuten online plataformen konpromiso gehigarria proposatu behar zuen, desinformazioari aurre egiteko jardueren jarraipenaren funtsezko adierazleak hobetuz eta emandako informazioa baliozkotzeko prozedura ezarriz. Ekintza horietarako epea 2022aren amaiera artekoa zen.

(5) Batzordeak alfabetatze mediatikoko estrategia bat hartu behar zuen EB mailan, desinformazioaren aurkako borroka haren zati integraltzat hartuko zuena. Horretarako, hainbat ekintza egin behar zituen Alfabetatze Mediatikoko Adituen Taldearekin lankidetzan arituz; besteak beste, ikerketa sistematikoetan oinarritutako helburuak definitzeko eta koordinazio-mekanismoak sortzeko. Hori guztia 2022ko amaierarako.

(6) Azkenik, Batzordeak neurriak hartu behar zituen Baliabide Digitalen Europako Behatokiak (EDMO) bere asmo handiko helburuak beteko zituela ziurtatzeko. Horren barruan sartzen zen SOMA proiektutik ikasitako ikasgaiak biltzea eta EDMOri aplikatzea.

#### **5.3.2.5. 2024/900 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2024ko martxoaren 13koa, publizitate politikoaren gardentasunari eta segmentazioari buruzkoa**

Erregelamendu honen helburu nagusia da publizitate politikoak oinarritzko eskubideak erabat errespetatzen dituela bermatzea da. Publizitate politikoaren esparruan, askotan, herritarrek zailtasunak izaten dituzte mezu politikoak identifikatzeko eta demokrazian modu informatuan parte hartzeko. Desinformazioaren fenomenoak, teknologien



aurrerapen azkarrak eta informazioaren manipulazioak, zuzenean eragiten dituzte hauteskunde eta legegintza-prozesuak<sup>125</sup>.

Publizitate politikoaren esparruan, datu pertsonalen tratamenduan oinarritutako iragarkiak segmentatzeko eta entregatzeko teknikak erabili ohi dira, iritzi politikoei eta bestelako datuei buruzko informazioa barne. Teknika horiei esker, iragarki politikoak zuzendu daitezke modu pertsonalizatuan, erabiltzaileentzat gardenak izan ez daitezkeen algoritmo automatizatuak erabiliz. Teknika horiek behar ez bezala erabiltzeak mehatxu larriak dakartza bidezko interes publikoentzat bai eta hauteskunde-prozesuetako aukera-berdintasuna eta gardentasunerako. Gainera, oinarrizko eskubideei eragiten die, adibidez, informazioa modu objektibo, garden eta pluralean jasotzeko eskubidearen zuzeneko urrapena dira<sup>126</sup>.

Testuinguru honetan, publizitate politikotzat zer ulertzen dugun definitzea ezinbestekoa da bai eta, erregelamenduaren aplikazio-eremua zein den zehazteko. Publizitate politikoa da, aktore politiko batek edo haren izenean erakunde batek prestatu, txertatu, sustatu, argitaratu, entregatu edo zabalduko zuzeneko edo zeharkako sustapena. Zabalduko mezua erabat pribatua edo komertziala den zehazteko, hainbat faktore hartu beharko dira kontuan, hala nola edukia, babeslea, erabilitako hizkuntza, transmisio-testuingurua, mezuaren helburua eta hedabideak. Publizitate politikoaren barruan sartzen da erakunde batek, bere izenean jardunez, hauteskunde, erreferendum edo legegintza-prozesuen emaitzan eragina izan dezaketen mezuak prestatzea, txertatzea, sustatzea, argitaratzea, ematea edo zabaltzea<sup>127</sup>.

Orain arte, eremu honetan emandako erregulazioa guztiz ezberdina izan da estatu kideen artean; horietako asko komunikabideen forma tradizionaletan zentratu ohi dira.<sup>128</sup>Egoera honetan Erregelamendua, gardentasun-betebeharrei buruzko arauak eta publizitate politikoko zerbitzuak emateko behar bezalako arretari buruzko betebeharrak

---

<sup>125</sup>2024/900 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2024ko martxoaren 13koa, publizitate politikoaren gardentasunari eta segmentazioari buruzkoa, 4-5.p.

<sup>126</sup>2024/900 (EB) Erregelamendua, *Ibidem*, 6.p.

<sup>127</sup>2024/900 (EB) Erregelamendua, *op.cit.*, 21-22-24.p.

<sup>128</sup>2024/900 (EB) Erregelamendua, *Ibidem*, 17-19.p.

ematen ditu, bai eta segmentazio-tekniken eta iragarkiak entregatzeko tekniken erabilerari buruzkoak eta horiek gainbegiratzeko eta gauzatzeko arauak ere<sup>129</sup>.

Honela, Erregelamendua publizitate politikoari aplikatuko zaio, baldin eta iragarki politiko bat EBren barruan partekatzen bada, estatu kide batean edo gehiagotan ezagutza publikokoa izan, edo Batasuneko herritarrei zuzentzen bazaie, berdin diola non dagoen kokatuta publizitate politikoko zerbitzuen hornitzailea edo babeslea, ezta hura zabaltzeko erabilitako bitartekoak ere<sup>130</sup>.

Neurri hauek ez dute eraginik iragarki politikoaren edukiarengan, ez eta Erregelamendu honek arautzen ez dituen publizitate politikoaren alderdiak arautzen dituzten Batasuneko edo estatu kideetako arauengan. Bestalde, ez ditu aldatzen kanpaina politikoak egitea eta finantzatzea arautzen duten arauak, honako hauek barne: aldi jakin batzuetan publizitate politikoak dituen debekuak edo muga orokorrak, gogoeta-egunak deiturikoak, emaile indibidualek egindako kanpainei egindako dohaintzak edo hauteskunde-kanpainarako merkataritza-publizitatea erabiltzeari buruzko debekuak; eta ez die eragiten iritzi-askatasunerako eta adierazpen-askatasunerako oinarrizko eskubideari<sup>131</sup>.

EBk desinformazioaren aurka hartutako neurriak aztertu ondoren, desberdintasuna ikusten da eremu pribatuaren eta publikoaren artean. Sektore ekonomikoan gardentasuna bermatzeko eta erabiltzaileak babesteko erregulazioak ezarri diren bitartean, sektore publikoan gomendioak eta "hard law" motako neurririk eza dira nagusi 2024ra arte. 2021era arte hartutako neurriek, gehienak gomendioak, ez bide dute emaitza nabarmenik eman. Gainera, enpresa pribatuei zuzendutako Jardunbide Egokien Kodea enpresa pribatuek aplikatzeko duten borondatearen arabera da. Publizitate politikoa arautzeko eta hauteskunde libreak sustatzeko araudi bat aldarrikatu bada ere 2024an, ekintza zehatzik ez dagoela ikusten da, hala nola alfabetatze mediatikoa, herritarren etxearen iritzi kritikoa sustatzeko.

---

<sup>129</sup>2024/900 (EB) Erregelamendua, *Ibidem*, 1.art.

<sup>130</sup>2024/900 (EB) Erregelamendua, *Ibidem*, 2.art.

<sup>131</sup>2024/900 (EB) Erregelamendua, *Ibidem*, 2.art.

### 5.3.3. BARNE ORDENAMENDUA

Orain arte, Espainiako Estatuak ez du desinformazioari aurre egiteko jarduera esanguratsurik abiarazi. Nazioartean gai horri buruzko kezka gero eta handiagoa bada ere, Espainiako Estatuak ez du ekintza zehatzik egin albiste faltsuak zabaltzearen eta informazioa manipulatzearen aurkako borrokan.

Orain arte aurrera eramandako neurri bakarra, 2020an Segurtasun Nazionaleko Kontseiluak onartutako desinformazioaren aurka jarduteko prozedura argitaratzen duen agindua izan da, EBren Desinformazioaren aurkako Ekintza Planean oinarritua<sup>132</sup>.

Segurtasun Nazionaleko Kontseiluak 2020ko urriaren 6an onartutako Desinformazioaren aurkako Espainiako Jarduera Prozedura onartu zuen. Nazioarteko testuingurutik abiatuz, EBko desinformazioaren aurka borrokatzeko Ekintza Planean oinarrituz, arazo honi modu koordinatu eta eraginkorrean heltzeko premia azpimarratu zuen Kontseiluak. Desinformazioak gizarte demokratikoentzat, batez ere ingurune digitalean, suposatzen duen gero eta mehatxu handiagoari erantzuteko sortu zen<sup>133</sup>.

Segurtasun Kontseiluaren aginduaren helburua, desinformazioaren fenomenoari aurre egiteko eta EB baldintzak betetzeko, desinformazioaren aurkako borrokan nazio-mailan beharrezkoak diren politikak eta estrategiak aplikatzeko eskudun izango ziren alderdiak definitzea zen; organoak, organismoak eta agintariak identifikatuz, eta haien ekintzetarako prozedurak ezarriz<sup>134</sup>.

Batetik, organo eskudunei dagokionez, PCM/1030/2020 Aginduak, Segurtasun Nazionaleko Kontseilua, Komunikazioko Estatu Idazkaritza eta Desinformazioaren aurkako Batzorde Iraunkorra izendatu zituen organo eskudun bezala; hauei sektore pribatuaren eta gizarte zibilaren lankidetzak eskatzeko ahalmena emanaz.<sup>135</sup> Bestetik, desinformazioari aurre egiteko ekintzen kasuan, aginduak, desinformazioari modu integralean heltzeko lau jarduera-maila zehaztu nituen. Lehen mailan, sareko

---

<sup>132</sup>PCM/1030/2020 Agindua, urriaren 30ekoa, Segurtasun Nazionaleko Kontseiluak onartutako desinformazioaren aurka jarduteko prozedura argitaratzen duena.

<sup>133</sup>PCM/1030/2020 Agindua, *Ibidem*, testuingurua.

<sup>134</sup>PCM/1030/2020 Agindua, *op.cit.*, 2.art.

<sup>135</sup>PCM/1030/2020 Agindua, *Ibidem*, 3.art.

faltsutze-kanpainen alerta egiten da. Bigarren mailan, kanpaina horiek arintzeko neurrien ondorioak eta inpaktua ebaluatzen dira. Hirugarren mailak erabakiak hartzea eta helburu politiko-estrategikoak ezartzea eskatzen du. Azkenik, laugarren mailan krisiari erantzuteko "kudeaketa politikoa" egiten da, komunikazio-kanpaina koordinatu baten bidez<sup>136</sup>.

Gobernuaren ekimenak hainbat kritika jaso zituen oposizio eta kazetarien zenbat erakunderen aldetik. Garaiko oposizio buruak, Pablo Casadok, "Egiaren Ministeritza" bezala kalifikatu zuen desinformazioaren aurka egiteko hartutako ahalegin hau. Madrilgo Prentsaren Elkarte, Espainiako Kazetarien Elkarteen Federazioa eta Mugarik Gabeko Kazetariak bezalako kazetarien erakundeak ere haien desadostasuna adierazi zuten. Desinformazioa geldiarazteko beharrari buruzko adostasuna bazegoen ere, batzuek prozedurak zentsura ekar zezakeen beldurra adierazi zuten. Oposizioak Europako Batzordeari helarazi zion kexa, eta azken horrek Espainiak hartutako neurria babestu zuen. Europako Justizia komisarioak berretsi zuen ezarritako ekintzak bat zetoze sare sozialetako desinformazioari aurre egiteko Europako jarraibideekin eta beraz Espainiar Gobernuak hartutako neurrik ez zuela zentsura sorrarazten<sup>137</sup>.

Segurtasun Nazionalaren Kontseiluaren Aginduak eta oposizioaren "Egiaren Ministerioa" izendapena, eztabaida handia sortu zuen sare sozialetan ere. Hau ikerketa hartza bezala hartuz, Twiteterren #Ministeriodelaverdad lagin bezala hartu zen eta 35,200 argitalpeneko datu-base bat garatu zen. Ondoren gauzatutako analisi kuantitatiboak eta kualitatiboek zera ondorioztatu zuten; eztabaidan eragin handiena izan zuten erabiltzaileak politikariak eta eskuineko pertsona ezagunak izan zirela, hala nola Ciudadanos, Vox eta PPko kide batzuk. Txioetan nagusi ziren hiru ikuspegi identifikatu ziren: ezkerreko diskurtsoak bereganatzea gobernuak kritikatzeko, PSOEko kideei irain pertsonalak egitea eta Espainian zentsura eta diktadura salaketak egitea<sup>138</sup>.

---

<sup>136</sup>PCM/1030/2020 Agindua, *Ibidem*, 4.art.

<sup>137</sup>TERUEL RODRIGUEZ Laura, ZANDRA ARROYO Ana, "La lucha contra la desinformación en Twitter y en la prensa: el debate en torno al #Ministeriodelaverdad en España", *Observatorio (OBS\*) Journal*, 16.zk., 2022, 235.or.

<sup>138</sup>TERUEL RODRIGUEZ Laura, ZANDRA ARROYO Ana, "La lucha contra la desinformación en Twitter y en la prensa: el debate en torno al #Ministeriodelaverdad en España", *Observatorio (OBS\*) Journal*, 16.zk., 2022, 239-246.or.

Desinformazioa kezka esanguratsu gisa agertu da Espainiar Estatuko esparru politikoan azken urteotan. 2022an, Malagako Unibertsitatean ikerketa bat egin zen Espainiako politikarekin lotutako buloen ezaugarriei buruz. Ikerketa horren arabera, garai hartan Espainiako Gobernua osatzen zuten alderdiak, Espainiako Langileen Alderdi Sozialista (%29,07) eta Unidas Podemos (%18,60), ziren bulo gehien biltzen zituztenak. Oro har, espektro politikoaren ezker aldean dauden alderdiek izan zituzten albiste gehien, independentismo katalanarekin lotutako alderdien presentziarekin batera eta aldiz eskuinean kokatzen diren alderdiak ziren mezu faltsu gehien zabaltzen zituztenak<sup>139</sup>.

Batzuek egungo errealitate sozial eta digitalari egia-ostearen (*la era de la posverdad*) garana deitzen diote. Errealitate berri horretan, eskuin muturrak eremu emankorra aurkitu du bere diskurtsoa ereiteko. Egitate objektiboen kaltetan emozioak eta sinesmenak manipulatzeko da egia-ostearen ezaugarria, eta, horri esker, eskuin muturrak errealitatearen nahita distortsioan oinarritutako narratibak zabaltzeko ahal izan ditu, iritzi publikoan eragiteko. Adibidez 2023. urtean, Madrilen gertatu zen 2023an, hilketak bat magrebtar bati faltsuki egotzi ziotenean. Poliziaren ikerketak egilea espainiarra zela frogatu zuen arren, eskuin muturreko buruzagi politikoak, Santiago Abascal bertsio faltsua mantendu eta zabaltzeko, agenda xenofoboa sustatzeko. Eskuin muturraren estrategia sare sozialen bidez mezu sinplistik eta probokatzailerak zabaltzean oinarritzen da, adierazpen askatasuna aprobetxatuz desinformazioa hedatzeko eta eztabaida sortzeko<sup>140</sup>.

Desinformazioak eta horren hedapen azkarrak Espainiako gobernua ere ikusarazi dute; izan ere, eskuinaren bat datozen komunikabiden bitartez helarazitako informazio faltsuek bidea ireki dute estatuko egungo presidentearen emaztearen aurkako ekintza judizialak hasteko, zeharka haren figura ahulduz eta demokrazia arriskuan jarritz. Ministeritza Fiskalak salaketa kentzea eskatu du eta beraz, aurkeztutako egitateak prozesuarekin jarraitzeko urriak direla ulertu dezakegu. Albiste faltsuetan oinarritutako funtsik gabeko salaketa horiek presidentearen osotasunaren eta sinesgarritasunaren aurkako eraso larria dira, baita sistema demokratikoaren funtzionamendurako aurrekari

---

<sup>139</sup>LÓPEZ-MARTÍN Álvaro, GÓMEZ-CALDERÓN Bernardo, CÓRDOBA-CABÚS Alba, “La desinformación, en auge: un análisis de los bulos sobre política española”, *Revista Internacional de Cultura Visual*, 10.zk., 2023, 7.or.

<sup>140</sup>LÓPEZ ORTEGA, Anna, “La amenaza del otro. Extrema derecha Española e inmigración”, FORTI, Steven, *Mitos y cuentos de la extrema derecha*, Fundación Primero de Mayo, 2023.

arriskutsua ere. Egitate honetatik azpimagarria da Pedro Sanchez presidenteak, haren komunikatuan, desinformazioaren problematika egungo demokraziaren aurkako eraosi zuzena dela adierazi izana; haren hitzetan, *“nahita egindako buloei eztabaida politikoa gidatzen uzten badiegu eta gezur horien biktimak Zuzenbide Estatuaren oinarrizko printzipioen aurka euren errugabetasuna frogatzera behartzen baditugu, emaitza kalte konponezina izango da gure demokraziarentzat”*<sup>141</sup>.

Amaitzeko, desinformazioa erabateko bilakaera eduki dueala ikus dezakegu, medio, alderdi eta subjektu askorantz helburu zehatzat lortzeko trasa bihurtuz. Desinformazioaren mekanismoaren erabilera, mehatxua da demokraziarentzat eta haren gardentasunarentzat, herritarren ezagutzaren manipulazioan oinarritzen baita, iritzi publikoan eragiteko asmoz.

## **6. ONDORIOAK**

Ondorengo lerroetan, Gradu Amaierako Lan honetatik ateratako ondorioak aztertuko ditugu.

### **I. Desinformazioa gaur egungo arazo larria da**

«Desinformazioa» izeneko fenomeno arazo larria bihurtu zen egungo gizartean. Aro digitalean, non informazioa abiadura bizian doan, desinformazioak, sistema demokratikoaren oinarriak ahultzen ditu. Errealitateari buruz dugun pertzepzio kolektiboa desitxuratzen du, egia eta gezurra bereizteko dugun gaitasuna suntsituz. Desinformazioa informazio okerra edo engainagarria zabaltzea baino gehiago da; berezko oinarrizko eskubide baten urrapena da. Horrek ahuldu egiten du lineako informazioaren fidagarritasuna ebaluatzeko dugun gaitasuna, iritzi kritiko bat garatzeko dugun gaitasuna murriztuz eta honela, estatu demokratiko batean libreki parte hartzeko eskubidea hertsatuz. Desinformazioak neurritz kanpoko eragina du gizarteko talde zaugarriengan. Eragin hori orientazio politiko desitxuratuen sustapenean agertzen da; izan ere, desinformazioa talde horien iritzi politikoak manipulatzeko erabil daiteke. Ez da doakoa NBEk 2022.urtetik geroztik gaiari zuzenean heldu izana, oinarrian giza

---

<sup>141</sup>Pedro Sánchez, “Carta a la Ciudadanía”, 2024ko apirilaren 24a, <https://twitter.com/sanchezcastejon/status/1783181535337734409/photo/1>

eskubideen eta oinarrizko eskubideen bortxaketen zantzuak egon daitezkeela argudiatuz. Desinformazioaren aurkako borroka erronka juridiko handia du; izan ere, erregulazio eraginkorrak orekatu egin behar du adierazpen-askatasunaren babes eta informazio faltsuak eragindako kalteak prebenitzeko beharra.

## **II. Desinformazioa oinarrizko eskubideen urrapen zuzena da**

Desinformazioa, informazio faltsu edo engainagarria baino gehiago da; fenomeno honek, zuzenean eragiten die pertsonen oinarrizko eskubideei, hain zuzen ere, informazio eskubidearen urrapen zuzena da. Informaziorako eskubidea oinarrizko eskubidetzat aitortzen dute nazioarteko erakundeek, hala nola NBEk, bai eta EBk ere, eta barne ordenamenduak. Oinarrizko eskubidea izateak zera esan nahi du, funtsezkoa dela giza duintasunerako, askatasunerako eta gizarte demokratiko bateko garapen indibidual eta kolektiborako.

Oinarrizko eskubideak, irismen unibertsaleko balio eta printzipioak dira eta barne ordenamenduaren oinarrizko edukia eta gida nagusi dira. Bereizketa horrek berekin dakar gizarte demokratiko baten funtzionamendurako ezinbesteko eskubidetzat hartzea eta ondorioz, beste eskubide batzuekin alderatuta, segurtasun-neurri aurreratuagoak eta berme bereziak ditu. Horregatik, desinformazioari aurre egiteko beharra are garrantzitsuagoa da. Eskubide horren osotasuna zaintzea ezinbestekoa baita demokrazia, herritarren parte-hartze informatua eta beste oinarrizko eskubide eta askatasun batzuen erabilera osoa babesteko.

## **III. Nahitaezkoa da desinformazioari aurre egingo dion eskubidea, eskubide indartsu gisa aitortzea:**

Informaziorako eskubidea adierazpen-askatasunetik harago doa; bata bestetik bereizten diren eskubideak dira. Urte askotan zehar, doktrina juridikoan, 3 korrante ideologiko egon dira talka honen inguruan; eskubide bakartzat ulertzen zutenak, informazio-askatasuna adierazpen askatasunaren luzapena zela ziotenak eta bi eskubide ezberdinen existentzia onartzen zutenak. Hala ere, gaur egun, jurisprudentziak eskubide desberdinen aurrean gaudela dio. GEEA kasuan, Auzitegiak, funtsezko bi kontzeptu horien arteko bereizketa esanguratsua egin zuen *Lingens vs Austria* kasuan. Adierazitakoaren arabera, adierazpen-askatasunak ideiak, pentsamenduak edo

balorazioak adierazteko gaitasuna bermatzen du, eta informaziorako eskubidea berriz, gertaeren komunikazioan oinarritzen da, hau da, egitateak. Ildo berdinetik, Kak, 105/1983 epaian, oinarritzeko bi eskubide hauen arteko bereizketa azpimarratu zuen. AKrekin bat etorriz, ondorioztatu daiteke, adierazpen askatasunaren xedea pentsamenduak, ideiak eta iritzik, hala nola, sinismenak eta balio-judizioak diren heinean, informazioa-askatasuna, informazioa libreki komunikatu eta jasotzeko eskubidea betiere egitateei buruzkoa denean.

#### **IV. Informazio eskubidearen interpretazio zabal batek egokiago egiten dio aurre desinformazio-estrategiari , informazioa jaso zein emateko eskubidea barnebiltzen du.**

Informazio-askatasuna, informazioa eman zein jasotzeko eskubidea da. Askotan, eskubide hori gertaerak zabaltzeko erabiltzen duten gizabanakoekin soilik lotzeko joera dugu, baina garrantzitsua da, era berean, eskubide horren dimentsio aktiboa aitortzea, informazioa aktiboki bilatu edo jasotzen duten pertsonen ere, erabaki informatuak hartzeko, bizitza publikoan erabat parte hartzeko eta beste oinarritzeko eskubide batzuk baliatzeko behar duten informazioa eskuratzeko. Hala, informaziorako eskubideak, gertaerak ezagutarazteko askatasuna bermatzeaz gain, informazioa eskuratzeko bermatzen du, demokraziaren eta herritarren parte-hartzearen funtsezko osagai gisa. Beste eskubideekin alderatuz, informazio-askatasunaren baitan, hartzailea bereziki garrantzitsua da; izan ere, informazio-askatasunaren helburu nagusia da, gizartearentzat garrantzitsuak eta esanguratsuak diren gertaerentzako sarbidea bermatzea, hau da, garrantzi publikoa duten eta herritarrek komunitatean modu eraginkorrean parte hartu ahal izateko beharrezkoak diren gertaerentzako sarbidea bermatzea.

#### **V. Informazio-askatasunak, egiazko informazioa zabaltzea bermatzen du.**

Informaziorako eskubideak egitateak transmititzea biltzen ditu, bereziki interes publikokoak direnak. Adierazpen-askatasunak ez bezala, egintzak adierazteko eskubideak erantzukizun berezia dakar egiazkotasunarekiko, hau da, komunikatzen dena egiazkoa izatea. Horregatik, GEEAk eta KAK, egiazkotasun-froga bat eskatzen dute informazio hori partekatzen duten gizabanakoen aldetik. GEEA *Fressoz y Roire vz Frantzia* kasuan adierazi zuen bezala, fede onaren baldintzak, bereziki informazioa askatasuna, igorle bezala jokatzen duten horien aldetik , fede onez jokatzea eskatzen



du; hau da, interes publikoko gai bati buruzko informazioa zehatza eta fidagarria ematea, aurretiaz kontrastatua izan den hura. KAK ere egiazkotasunaren uka beharra ezinbestekotzat ulertzen du adierazpen-askatasunak bete behar ez duen uka behar bat dela adieraziz. Honela, egiazkotasunak, informazioa transmititzen duenaren aldetik, datu objektiboetan kontrastatutako berariazko eginbide bat eskatzen du.

## **VI. Desinformazioari aurre egiteko, ezinbestekoa da Informazio eskubidearen menpe dauden subjektuak zeintzuk diren argi edukitzea.**

Informazio-eskubideak, informazioa jaso zein emateko eskubideak biltzen dituen heinean, bi subjektu ezberdin ditugu; igorlea eta hartzailea. Igorlearen figuraren kasuan, GEEA eta AK bat datoz subjektu hauek zabaltzen duten informazioari ezarri beharreko aurreko kontrol bat egikaritu behar dala, aldiz, subjektu hauen izaeraren inguruan ez dute iritzi amankomun bat. KAREN arabera, ohikoa da igorlearen figura esparruan profesionalki diharduten pertsonekin lotzea. Aitzitik, eskubide honen testuinguruan AK-ren arabera, ez dago kategoria espezifiko horietara mugatuta behar baizik eta edozein pertsonak erabil dezake; izan ere, igorlea funtsezko bi elementurengatik definitzen da: iritzi publikorako garrantzitsuak diren gertaerei buruzko ezagutza zuzena izatea eta informazio hori transmititzeko gaitasuna duena. GEEA-k berriz, hasiera batean, komunikabideak gizartearen "*txakur zaindaria*" bezala ulertzen zituen eta ondorioz hauek zuten bermatua gehiegikeriaren edo probokazioaren marjinetatik at, interes publiko handiko informazioa zabaltzea. Haren jurisprudentzia eguneratuz, 2016an auzitegiak aitortu zuen webguneek albisteetarako sarbide publikoa hobetzeko eta informazioaren hedapena sustatzeko duten zeregin esanguratsua kontuan hartuta, blogarien eta sare sozialetan eragina duten erabiltzaileen lana ere "*txakur zaindari publiko*" batenaren pareko dala eta beraz, eskubide honen baitan jokatu behar dutela. Gaur egun, zalantzan jarri behar da "*txakur zaindaria*" deitutakoen eta, oro har, gainerako herritarren arteko banaketa. Izan ere, argudio horrek ez du kontuan hartzen, gaur egungo gizartean, Interneterako sarbideak herritar orori "*txakur zaindari*" bihurtzeko aukera ematen diola, informazioa hartu zein zabaltzeko aukera emanez.

## **VII. Informazioa eskuratzea ez da eskubide indibidual bat bakarrik, demokraziaren funtzionamendu egokirako baldintza bat da.**

Informazio eskubidea, ez da eskubide indibidual bat bakarrik, izan ere demokraziaren funtzionamendurako baldintza bat da. Eskubide hauen haztapan eta mugen inguruan, NBEren Batzar Orokorraren 78/287 ebazpenaren arabera, informazio-askatasuna, GEAUk aitortzen dituen gainontzeko eskubideen funtsa izateaz gain, demokrazia gauzatzeko beharrezkoa da. EKren aburuz, egiazko informazioa jasotzeko eskubidea, bizitza kolektiboan garrantzitsuak diren gaiak ezagutzeko funtsezkoa izateaz gain, herritarrek sistema demokratikoan aktiboki parte hartzea ere baldintzatzen du. Beraz, desinformazioak, informazioa jasotzeko eskubidea kaltetzeaz gain, kalte honek herritarron iritzi kritikoa garatzeko eskubidea eta honela parte hartze librerako eskubidea kaltetzen ditu, ondorioz, demokraziaren funtzionamendua guztiz zatikatzen du.

## **VIII. Desinformazioa demokraziaren aurkako teknika da**

Desinformazioa demokraziaren aurkako eraso zuzena da. Fenomeno honek sistema demokratikoaren oinarriak suntsitzen ditu. Errealitateari buruz dugun pertzepzio kolektiboa desitxuratzen du, egiazkoaren eta faltsuaren artean bereizteko gaitasuna deuseztatuz. desinformazioak kalte publikoa eragiten duen informazio faltsu edo engainagarria da, irabazi-asmoekin edo herritarrak engainatzeko zabaltzen dena. Kalte publiko horren baitan, prozesu demokratikoen eta ondasun publikoen aurkako mehatxuak sartzen dira. Desinformazioa, informazio-eskubidearen aurka doan heinean, beste eskubide batzuk baliatzeko aukera deuseztatzen du, beste eskubide instrumentalak egikaritzeko aukera deuseztatuz eta gobernuaren ekintza kontrolatzeko baliabideak murriztuz. Honela, KAren hitzetan, informazio-eskubidea oinarritzko eskubide izanik, zuzenbidezko estatu sozial eta demokratikoaren antolamendurako oinarria da eta hortaz, beroren aurkako ekintzak, demokrazioaren aurkako ekintzak dira.

## **IX. Desinformazioari aurre egiteko neurriek izaera zatikatua dute**

Desinformazioari heltzeko hartutako neurriek agerian utzi dute eremu pribatuaren eta publikoaren artean desadostasun nabarmenak daudela. Sektore pribatuan, EBk bi erregelamendu finkatzea lortu du fenomeno horri aurre egiteko helburuarekin, baina

esparru publikoan oraindik erregulazio argi eta eraginkor baten zain gaude. Ereku pribatuan, merkatuari begira, araudi zorrotzagoa garatu da, "hard law" izenez ezagutzen dena; hala nola, zenbait erregelamendu eraman dira aurrera. Bestalde, eremu publikoan, hainbat ekimen sustatu badira ere, ekimen horiek "soft law" izenekoaren parte izan ohi dira; besteak beste, adierazpenak, gomendioak eta ebazpenak.

#### **X. Arlo publikoan hartutako neurriak ez dira nahikoak izan**

Nahiz eta desinformazioak etengabeen kalteak sortzen aritu den, 2024ra arte, balio juridikoa duen neurri arautzaile bat ere ez da ezarri eremu publikoan. Nahiz eta EBk 2015etik ahaleginak egiten hasi, ekimen horietako bat ere ez da nahikoa izan lineako desinformazioaren eraginari aurre egiteko. Europako Konstu Auzitegiak 2021.urtean egindako ebaluazioak erakusten duen bezala, proposatutako ekintzen koordinazio, jarraipen eta ebaluazio eraginkorrik ez egoteak, proposamen eta neurrien eraginkortasun eza ekarri du. Aldiz, azken urte honetan, desinformazioaren problematikari heltzeko, lehen aldiz eremu publikoa arautzen duen erregelamendu bat garatu da. 2024ko martxoaren 13an onartutako publizitate politikoaren gardentasunari eta segmentazioari buruzko erregelamendua aurrerapauso handia izan da publizitate politikoak oinarrizko eskubideak errespetatzen eta demokraziaren funtzionamendua bermatzen. Horretarako, segmentazio-tekniken eta iragarki pertsonalizatuaren aurreko kontrol mekanismoa berriak ezarri dira.

Publizitate politikoaren arautzeko erregelamendu bat ezarri den arren, desinformazioari aurre egiteko bide luzea dugu aurretik. Informazioarako eskubidea funtsezko eskubidea da gizarte demokratiko batean, eta erakundeek sustatu eta babestu behar dute. Eskubide hori bermatzeko, funtsezkoa da neurri gehigarriak hartzea, hala nola informazio politikoaren hedapenean gardentasuna sustatzea, gertakari independenteak egiaztatzeko mekanismoak ezartzea eta hezkuntza mediatikoa sustatzea adin goiztiarretik. Gainera, komunikabideei eta online plataformei hedatzen duten informazioaren egiazkotasun- eta objektibotasun-estandarrak betetzea eskatzen dieten erregulazioak indartu daitezke. Era berean, garrantzitsua da informazio-iturrien aniztasuna eta horietarako sarbide zuzena sustatzea, gizarte informatua eta parte-hartzailea bermatzeko.

## **XI. Barne Ordenamenduaren ekimen eza**

Orain arte, Espainiako Estatuak desinformazioaren aurkako borrokari dagokionez EBk ezarritako ildoak jarraitu die nagusiki, berez ekimen espezifikorik garatu gabe. 2020an Segurtasun Nazionalako Kontseiluak desinformazioaren aurka jarduteko prozedura argitaratzen duen agindua onartu zuen, EBren Desinformazioaren aurkako Ekintza Planean oinarritua. Espainiar Estatuak ez du ezarri desinformazioaren erronkari aurre egiteko estatu mailan erabil lezakeen neurri gehigarririk; besteak beste, desinformazioa arautzeko berriazko legeria bat, hezkuntza-sistemaren bidez alfabetatze mediatikoa, datuak egiaztatze eta publizitate politikoan gardentasuna lortzeko plataforma digitalekiko lankidetzaren indartzea etab.

## 7. BIBLIOGRAFIA

### 1. DOKTRINA

AGUDO ZAMORA, Miguel J, *Manual de derecho constitucional*, Tecnos, Madrid, 2011.

ARJONA SÁNCHEZ, Miguel, “La infomarcion en la era de internet. El caso de las fake news”, *Revista Estudios Institucionais*, 6.zk., 2020.

BASTIDA FREIJEDO, José Francisco, VILLAVERDE MENÉNDEZ, Ignacio, REQUEJO RODRÍGUEZ, Paloma, PRESNO LINERA, ALÁEZ CORRAL, Benito, Miguel Ángel, FERNANDEZ SARASOLA, Ignacio, *Teoría general de los derechos fundamentales en la Constitución española de 1978*, Tecnos, Madrid, 2004.

BYUNG CHUL HAN, *En el Enjambre*, Herder Editorial, Barcelona, 2014.

CASERO-RIPOLLÉS, Andreu, “El periodismo político en España: algunas características definitorias”, *Periodismo político en España: concepciones, tensiones y elecciones*, Cuadernos Artesanos de Latina, La Laguna , 2012.

DAFONTE-GÓMEZ, Alberto eta MÍGUEZ GONZALEZ, María Isabel, *El fenómeno de la desinformación : reflexiones, casos y propuestas*, Dykinson, Madrid, 2023.

DESANTES GUANTER, José María.: “Principios jurídicos de la comunicación ideológica”, *Revista de Ciencias de la Información*, Madrid, 1983.

DÍEZ PICAZO, Luis María, “La libertad de expresión de información”, *Sistema de derechos fundamentales* , Civitas-Thomson Reuters, Iruña, 2013.

ENGESSER, Steven, ERNST, Nicole, ESSER, Frank, BUCHEL, Florin, “Populism and social media: how politicians spread a fragmented ideology. Information”, *Communication & Society*, 2017, 1109-1126.or.

ESPÍN, Eduardo, “Los derechos de libertad (II). Libertades de expresión e información”, *Derecho constitucional. Vol. 1, El ordenamiento constitucional*, Tirant lo Blanch, Valencia, 2018.

EXPÓSITO GÁZQUEZ, Ariana, “La (des)información en la red”, *Revista Digital de Derecho Administrativo*, 28.zk., 2022.

FERNÁNDEZ-MIRANDA CAMPOAMOR, Alfonso, “Comentario al artículo 20”, *Comentarios de la Constitución Española Tomo II*, Madrid, 1996.

GARCÍA SANZ, Rosa María, “La difícil relación del instituto de la opinión pública y los procesos de comunicación publica en Internet: la desinformación desafiando las garantías constitucionales”, *Revista de Derecho Político*, 106.zk., 2029.

GÓMEZ-REINO , Juan, *Legislación básica de Derecho de la Información*, Tecnos, 1985.

JÓDAR MARÍN, Juan Ángel, “La era digital: nuevos medios, nuevos usuarios y nuevos profesionales”, *Razón y Palabra*, 71.zk, Quito, 2010.

LADERO, OSCAR, “La información pública como Derecho”, *Tiempo de Gestión* 19.zk., 2015.

LÓPEZ ORTEGA, Anna, “La amenaza del otro. Extrema derecha Española e inmigración”, FORTI, Steven, *Mitos y cuentos de la extrema derecha*, Fundación Primero de Mayo, 2023.

LÓPEZ-MARTÍN Álvaro, GÓMEZ-CALDERÓN Bernardo, CÓRDOBA-CABÚS Alba, “La desinformación, en auge: un análisis de los bulos sobre política española”, *Revista Internacional de Cultura Visual*, 10.zk., 2023.

PÉREZ LUÑO, Antonio E, “*Los derechos fundamentales*”, Tecnos, Madrid, 1984.

PÉREZ ROYO, Javier, “Derecho a la información”, *Boletín de la ANABAD*, 49.zk.

RAFAEL BUSTOS, Gisbert, “ El concepto de libertad de información a partir de su distinción de la libertad de expresión”, *Estudio politiko en aldizkaria*, 85. zk., 1994.

ROLLNERT LIERN, Göran, “El derecho de acceso a la información pública como derecho fundamental: una valoración del debate doctrinal a propósito de la Ley de transparencia”, *Teoría y Realidad Constitucional*, 2014.

SÁNCHEZ AGESTA, Luis.: "Simplicidad y complejidad del artículo 20 de la Constitución", *AEDE*, 12.zk.

SANTAOLALLA LÓPEZ, Fernando, *Derecho Constitucional*, Dykinson, Madrid, 2010.

SERRANO JIMÉNEZ, Pascual, *Desinformación: Cómo los medios ocultan el mundo*, Grupo Planeta, 2009.

TERUEL RODRIGUEZ Laura, ZANDRA ARROYO Ana, “La lucha contra la desinformación en Twitter y en la prensa: el debate en torno al #Ministeriodelaverdad en España”, *Observatorio (OBS\*) Journal*, 16.zk., 2022.

VILLAVARDE MENÉNDEZ, Ignacio, “Estado democrático e información. El derecho a ser informado” *Revista española de derecho administrativo*, 93 zk, 1997.

VILLAVARDE MENÉNDEZ, Ignacio, “Los derechos del público: la revisión de los modelos clásicos de proceso de la comunicación pública”, *Revista Española de Derecho Constitucional*, 23.zk, 2003.

WARDLE, Claire, DERAKHSHAN, Derakhshan, Hossein, Information Disorder: Toward an interdisciplinary framework for research and policymaking. Council of Europe Report, Strasbourg, 2017.

## **2. ARAUDIA**

### **2.1. NAZIOARTEKO ARAUDIA**

- Ebazpena [A/RES/59\(I\)](#), 1946ko abenduaren 14koa, Convocación de una conferencia internacional de libertad de información.
- Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala. Paris, 1948ko abenduaren 10an onartua. 19. artikulua.
- 1966ko abenduaren 16koa, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna.
- Tratatuaren Zuzenbideari buruzko Vienako Konbentzioa 1969ko maiatzaren 13koa.
- Iritzi eta adierazpen Askatasunerako Erakundearen Kontalari Bereziaren agentziaren A/HRC/47/25 txostena, 2021eko apirilaren 13koa, “La desinformación y la libertad de opinión y de expresión”.
- Nazio Batuen Batzar Orokorraren 76/227 ebazpena, 2021ko abenduaren 24koa, “*Desinformazioa indargabetzea, giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak sustatzeko eta babesteko*”.
- 78/287 Idazkari Nagusiaren txostena, 2022ko abuztuaren 3koa, “*Giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak sustatzeko eta babesteko desinformazioa indargabetzea*”.
- Nazio Batuen Batzar Orokorraren 77/287 ebazpena, 2022ko abuztuaren 12koa, “*Desinformazioa indargabetzea, giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak sustatzeko eta babesteko*”.

### **2.2. EUROPAR BATASUNEKO ARAUDIA**

- Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna. Niza, 2000ko abenduaren 7an onartua.

#### **2.2.1. EUROPAR KONTSEILUA**

- “Reunión del Consejo Europeo”, 2015eko martxoaren 19 eta 20koa.
- “Paquete sobre Servicios Digitales”, 2022ko urriaren 26a, <https://www.consilium.europa.eu/es/policies/digital-services-package/>

### 2.2.2. EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUA

- “Comunicación Conjunta al Parlamento Europeo, al Consejo Europeo, al Consejo, al Comité Económico y Social Europeo y al Comité de las Regiones: Plan de Acción contra la desinformación”, 2018ko abenduaren 12a.
- “Conclusiones del Consejo sobre la configuración del futuro digital de Europa” 2020ko ekaiaren 9a.

### 2.2.3. EUROPAKO BATZORDEA

- “Comunicación de la comisión al Parlamento Europeo, al Consejo, al Comité económico y social Europeo y al Comité de las Regiones: La lucha contra la desinformación en línea: un enfoque europeo” 2018ko apirilaren 26a.
- 9/2018 – Desinformazioaren aurkako jardunbide egokien kodea.
- “Comunicación: Shaping Europe’s Digital Future” 2020ko otsailaren 19a.

### 2.2.4. EUROPAKO KONTU AUZITEGIA

- Informe Berezia, 2021ko irailekoa, “El impacto de la desinformación en la UE: una cuestión abordada, pero no atajada”.

### 2.2.5. EUROPAKO PARLAMENTUA

- 2022/2065 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2022ko urriaren 19koa, zerbitzu digitalen merkatu bakarrari buruzkoa eta 2000/31/EE Zuzentaraua aldatzen duena.
- 2024/900 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2024ko martxoaren 13koa, publizitate politikoaren gardentasunari eta segmentazioari buruzkoa.

### 2.2.6. IRITZI ETA ADIERAZPEN ASKATASUNERAKO ERAKUNDEA

- A/HRC/47/25 txostena, 2021eko apirilaren 13koa, “La desinformación y la libertad de opinión y de expresión”.

## 2.3. **ESPAINIAR ESTATUA**

- Espainiar Konsitutuzioa (EBO 311 zkia, 1978ko abenduaren 29an onartua).
- Espainiako Errege Akademia, 23. edizioa 2014ko urrian argitaratua.



- Espainiako Errege Akademia.  
<https://twitter.com/RAEinforma/status/1285489116986122256> . (2020/07/21).
- PCM/1030/2020 Agindua, urriaren 30ekoa, Segurtasun Nazionaleko Kontseiluak onartutako desinformazioaren aurka jarduteko prozedura argitaratzen duena.

#### **2.4. ZUZENBIDE KONPARATUA**

- 1969ko azaroaren 22koa, Giza Eskubideei buruzko Amerikako Konbentzioa.
- 2003ko ekainaren 10ekoa, Amerikako Estatuaren Erakundearen (AEE) Batzar Nagusiaren XXXIII-O/03 ebazpena.

### **3. JURISPRUDENTZIA**

#### **3.1. GIZA ESKUBIDEEN EUROPAKO AUZITEGIA**

- 1979ko apirilaren 26ko GEEAE, 6538/74 auzia, Sunday Times.
- 1986ko uztailaren 8ko GEEAE, 9815/82 auzia, Lingens vs Austria.
- 1987ko martxoaren 27ko GEEAE, 9248/81 auzia, Leander vs Suecia.
- 1991ko urtarrilaren 21ko GEEAE, 29183/95 auzia, Fressoz y Roire vs Frantzia.
- 1992ko apirilaren 13ko GEEAE, 11798/85 auzia, Castells vs España.
- 1998ko otsailaren 19ko GEEAE, 14967/89 auzia, Guerra y otros vs Italia.
- 2015eko otsailaren 17ko GEEAE, 6987/07 auzia, Guseva vs Bulgaria, Wojtyczek epailearen boto partikularra.
- 2016ko azaroaren 8ko GEEAE, 18030/11 auzia, Helsinki Bizottság vs Hungria.
- 2022ko urtarrilaren 17ko GEEAE, 45581/15 auzia, Sanchez vs Frantzia.

#### **3.2. EUROPAR BATASUNEN JUSTIZIA AUZITEGIA**

- 1991ko uztailaren 25ko EBJA, C-288/89 auzia, Stichting Collectieve Antennevoorziening Gouda y otros.
- 1997ko ekainaren 26ko EBJAE, C-368/95 auzia, Vereinigte Familienpress Zeitungsverlags- und Vertriebs GmbH.
- 2014ko maiatzaren 13ko EBJAE, C-131/12 auzia, Google Spain eta Google.

- 2019ko uztaialaren 29ko EBJAE, C-469/17 auzia, Funke Medien NRW.

### **3.3. KONSTITUZIO AUZITEGIA**

- 1981ko uztaialaren 14ko KAE 25/1981, EBO 193 zkia, 1981ko abuztuaren 13koa.
- 1981ko uztaialaren 15ko KAE 21/1981, EBO 161 zkia, 1981ko uztaialaren 7koa.
- 1983ko azaroaren 23ko 105/1983 KAE, EBO 298 zkia, 1983ko abenduaren 14koa.
- 1985ko otsailaren 13ko 19/85 KAE, EBO 55zkia, 1985ko martxoaren 5koa.
- 1986ko abenduaren 16ko 159/1986 KAE, EBO 313 zkia, 1986ko abenduaren 31koa.
- 1988ko urtarrilaren 21ko 6/1988 KAE, EBO 31 zkia, 1988ko otsailaren 5koa.
- 1990ko azaroaren 12ko 172/1990 KAE, EBO 287 zkia, 1990ko azaroaren 30koa.
- 1994ko otsailaren 15ko 41/1994 KAE, EBO 65 zkia, 1994ko martxoaren 17koa.
- 2007ko ekainaren 4ko 139/2007 KAE, EBO 161 zkia, 2007ko uztaialaren 6koa.
- 2015ko apirilaren 12ko 65/2015 KAE, EBO 122 zkia, 2015eko maiatzaren 22koa.